



Zomorro eta Zahagi Dantza eguna, gaurkoa

ARANO
INAUTERIAK

11



Kaldereroak prest, zartagiei kolpeka aritzeko

ASTIGARRAGA
KALDEREROAK

7



Esperotakoa ez izan arren, «Maroko baino hobea», Harrera Sareari esker

HERNANI
HARRERA SAREA

2-3



Gorka Kijera, bizi-bizi

Ostegunean Anoetan, Kopako finalerdietan Realaren kontra «landutakoa aterata» gustora geratu da Gorka Kijera, Mirandese kapitain hernaniarra. «Sekulakoa» egin du, kanpotik umetatik ikusitakoa barrutik sentitzeko aukera izan baitu. Mirandan jokatu beharreko bueltako partidua ere, ez da txikikeria izango.

12

Goizuetako eta inguruko burdinolei buruz, hitzaldia gaur arratsaldean

Joxe Jabier Etxeberriak eta Antton Mari Mitxelenak eskainiko dute, 18:30etan hasita, udaletxeko ganbaran.

Goizuetako eta inguruko burdinolak gai hartuta, hitzaldia eskainiko dute gaur arratsaldean, Goizuetan, bi herritarrek: Joxe Jabier Etxeberriak eta Antton Mari Mitxelenak. Udaletxeko ganbaran izanen da, 18:30etan hasita, eta ola eta presen historia, itxura, egitura, datuak... azalduko dute, irudi, bideo eta maketekin lagunduta.

GOIZUETA
HITZALDIA

10

Formakuntza saioak, merkatari eta ostalarientzat

Herriko merkatari eta ostalari txikiei zuzenduta, formakuntza saioak jarriko dituzte martxan; eta otsailaren 18an izango da aurrenekoa; guztira, sei tailer. Izenematea zabalik dago.

HERNANI
MERKATARITZA

4

Auzo Batzarra egingo dute gaur goizean, 2020ko asmoak azaltzeko

EREÑOTZU
AUZO UDALA

10

AGENDA

GAUR 16:00 : Bihotz
Biriketako
Suspertzea
HERNANIN

GAUR 12:00 : 'Ikimilikiliklik'
haur antzerkia,
Biterin
HERNANIN



GAUR 16:00 : Landaren aurre,
Independiente
taldeari
HERNANI


CANEXION

Maskotentzako
kalitatezko denda
eta aholkularitza

Albaitari-klinika
berria

 [facebook.com/Canexiona](https://www.facebook.com/Canexiona)



Akarregi poligonoa, 10. Hernani
943 04 87 83

«Independentzia ekonomikoa lortu ahala, Harrera Sareko laguntza beste norbaitengana bideratzen da»

Urtebete pasatxo da Hernaniko Harrera Sarea sortu zela. Kale gorrian zegoen gazte baten berri izatean, biltzen hasi ziren hainbat kide. Beharra duen jendea dagoen bitartean, lanean segiko dute.

HERNANI HARRERA SAREA

Kalean bizi beste erremediorik topatu ez dutenak laguntzen ditu Hernaniko Harrera Sareak; etorkinak eta gazteak, normalean. «Hona iristen direnean, ez daukate ezer; ez dirurik, ez etxerik, ez janaririk eta ezta familiaren edo lagunaren babesik ere».

2018ko neguaren bueltan hasi zen taldea egituratzen. «Kale gorrian zegoen gazte baten berri izan genuen, eta egoeraren larritasuna ikusita, hainbat lagun elkartu ginen. Horrez gain, Irungo Harrera Sareko kideekin harremana genuen, eta bertan bizi zuten kolapso egoeraren berri eman ziguten; jende gehiagok laguntza behar zuela ere azaldu ziguten. Bildu ginen artean, Urumea Herri Guneko eta Hernaniko Gaztetxe-ko hainbat gazte geunden, eta laguntzeko prest zeuden beste herritar batzuk ere bildu ziren».

Behar materialak, eta baita ez-materialak ere, asetzen

Harrera Sarearen lehentasunen artean daude «denon artean, bizileku, elikadura, mugikortasun eta komunikazio beharrak asetzeari». Izan ere, orain arte topatu dutena aztertuta, diote, «hona iristen direnean ezer ez» daukatela; «ez dirurik, ez etxerik, ez janaririk eta ezta familiaren edo lagunaren babesik ere».

Baina bestelako behar batzuk ere izaten dituzte. «Komu-



Behar materialak bakarrik ez; Harrera Sarea behar ez-materialak ere asetzen siatzen da; «bidelagun izaten».

nikatzeko zailtasunak ere izaten dituzte, hizkuntzaren ezagutza faltagatik». Horregatik, bestelako laguntza ematen ere saiatzen dira. «Tramite administratiboak egin beharra suertatzen denean, osasun egoera fisiko edo emozionalari dagokionez gorabeherak izaten dituztenean, bidelagun izaten saiatzen gara. Azken batean, oinarritzko behar materialak asetzen ahalegintzen gara, mugak muga».

Trabak eta baliabide falta

Hain zuzen, ez dira gutxi, laguntza emateko topatu dituzten trabak. «Legearen arabera, hiru urtez jarraian egon behar dute hemen erroldatuta, paperak lortu ahal izateko. Ez hori bakarrik; hiru urte horiek pasata ere, lanerako aurrekontratu bat daukatela ere erakutsi behar izaten dute. Baina, paperik gabe, oso zaila egiten zaie hau lortzea. Honek guztiak prozesua ikara-

«Baliabide material eta pertsonal eskasia medio, ez gara gai izan momentu berean sei pertsona baino gehiagori laguntza emateko»

garri luzatu eta zailtzen du».

Horrez gain, baliabideetan ere ez dabilta sobera. «Behar materialei erantzuteko kontu korrante bat zabaldu genuen, nahi duenak donazioak egin ditzan. Tamalez, orain arte honek ez du arrakasta handirik eduki, eta nahiko larri gabilta».

Baliabide falta horren eraginez, diote, ezin dutela nahi beste lagundu. «Laguntza jasotzen duen pertsona kopuruari dago-

kionez, nahiko mugatuta egon gara beti. Baliabide material eta pertsonal eskasia medio, ez gara gai izan momentu berean sei pertsona baino gehiagori laguntza emateko».

Trabak gainetik, laguntzaileak

Izan duten laguntza azpimarratzen dute, hala ere. «Taldeko partaideei dagokienez, aldaketa dezente izan ditugu, bai Harrera Sarean boluntario aritu direnen artean, eta baita kale gorrian egoteagatik laguntza jaso dutenen artean ere. Azken hauen kasuan, independentzia ekonomikoa lortu ahala, Harrera Sareko laguntza beste norbaitengana bideratzen da. Hala ere, Harrera Saretik 'joan' direnekin harremana izaten jarraitzen dugu».

Normalean, erabiltzaileek Harrera Sarearen berri ahoz ahokoaren bitartez jakiten dutela diote boluntarioek, eta horretan, Harrera Sarearen laguntza jasotzen dutenek laguntzen

HERNANIKO HARRERA SAREA

HARREMANETARAKO:

Informazio gehiago lortzeko, laguntzeko edo bileretan parte hartzeko, 669 930 290 telefonora deitu daiteke.

LAGUNTZA EKONOMIKOA:

Kontu korrantea: ES10 3035 0025 810250122712.

LAGUNTZEKO MODU GEHIAGO:

-Etorriko direnak erroldatzeko prest dauden herritarrek.

«Tramite administratiboak egin beharra suertatzen denean, osasun egoera fisiko edo emozionalari dagokionez gorabeherak izaten dituztenean, bidelagun izaten saiatzen gara»

dute, beraiek aitortu bezala. «Beste batzuei laguntzen saiatzen gara, sarearen berri emanez».

Bestalde, Harrera Sareko boluntarioek diote «beste eragile sozial batzuen babes» badutela; hala nola, «Hernaniko Elkagari Bankua, Caritas, Karabekole...»

Eta «behar materiala asetzeko dirua lortzeko, hainbat ekintza» antolatuta dituzte, baita ere, «eta jarraitzeko asmoa daukagu»: kontzertuak antolatuta dituzte, poltsak eta pintxoak saldu dituzte, bigarren eskuko azokan postua jartzen hasi dira...

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Lege gordailua:
ISSN: 1469/2018
ISSN: 2659-5036

Eposta:
kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus
www.kronika.eus

Lan-taldea:
A. Arbelaitz, O. Egaña,
I. Goñi, L. Goñi, B. Los
Arcos, A. Moreno, J. Osa,
M. Ramirez de Alda eta
J. Zubitur.

Argitaratzailea:



Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

TOKIKOM



«Ez da espero nuena, baina Maroko baino hobea bai»

Harrera Sareak laguntzen dituenetako batzuek beraien esperientziaren berri eman dute. «Lan bila, etorkizun hobego baten bila» etorri dira denak. Harrera Sareari esker «bizimodua hobetzen» ari direla diote.

HARRERA SAREA ERABILTZAILIAK

Kasuetako batzuk besterik ez dira, baina antzeko esperientziak izaten dituzte denek, orokorrean.

Beste batek, urtebete eta lau hilabete daramazki estatuan. «Marokotik Barbatera joan nintzen. Gero, Leridara. Han hilabete pasa nuen lan bila. Aurkitu ez nuenez, Donostiara joan nintzen. Adin txikikoen zentro batean egon nintzen 7 hilabetez. Gero, kalean. Tabakaleran jendea ezagutu nuen, eta horrela izan nuen Hernaniren berri». Etorri zenean ez zuen Harrera Sarea ezagutzen. Baina Hernanin geratu zela dio, «Donostian baino laguntza gehiago aurkitu» zuelako. Iritsi zenean, «etxea eta janaria» lortzea zituen lehendabiziko beharrak. «Harrera Sareak lagundu dit lortzen janaria, etxea, trenerako txartelerako dirua ... Gauza asko. Ekintzak egin ditugu». Horri esker, bila

ari zen horretatik hainbat gauza lortu dituela dio. «Aurrena, etxea eta janaria behar nituen. Gero hasten zara pentsatzen zer egin nahi duzun. Oraindik ez dut lortu nahi dudana guztia, baina bidean nago. Nire bizimodua hobetzen ari naiz. Hala ere, honek ez du antzik espero nuenarekin. Ez da espero nuena, baina Maroko baino hobea bai. Orain hemengo lagunak baditut. Ikasten ari naiz. Etxea dut. Gaztelania pixka bat hitz egiten dut. Lehen baino hobeto nago. Baina oraindik beharrak badauzkat; bereziki, lana, familia laguntzeko. Eta paperak lortzea».

«Hemen ere lana falta da»

Gainontzekoen kasuak ere antzekoak dira. Besteren bat Hernanin lagun bat zuelako etorri zen, eta hark Harrera Sarearen berri ez zuen. Baina mezkitan egindako lagun batek aipatu zion nora jo. «Lan egitera etorri nintzen, bizimodua hobetzera.

Baina ez da erraza, eta sufritu egiten dugu pixka bat». Harrera Sareko kide batek gazte hauetako batek kontatutakoa gogoratu du: «Horrelako ideiak dauzkate. Nahiz eta hizkuntza bera ere ez ezagutu, uste dute berehala hasiko direla lanean. Batek esaten zidan kalean billeteak aurkitzea espero zuela. Behin hona iritsi eta hondartzan neska bat topless egiten ikustean, edozer sinetsi zezakeela pentsatu zuen».

Gauzak horrela, bizi duten egoeraren gogortasuna nabaria da, baina ez dute etsitzen. «Marokon banituen etxe bat, janaria eta arropa. Hobetzeko etorri ginen hona, eta berdin gaude. Hemen ere lana falta da. Han lana bai, baina ez dago dirurik. Baina hobetzen ari gara, pixkanaka».

Etortzean, «etxea, janaria eta arropa» bilatzen dituzte aurrena. «Behin kokatuta, bizimodua ateratzeko lana bilatzen dugu. Formazioa eta lana».

Bila ari zen hori aurkitu duenik bada. «Etxea eta errolda lortu ditut». Hortik aurrera, amesten saiatzen dira. «Lana, emaztea, umeak... Familia ere nahi nuke».

Aurreiritzien kontra

Lan falta ez da, hala ere, topatu duten oztopo bakarra. Kultura desberdinetako jendeak elkar ulertzea ez da beti erraza izaten. Ez dute, hala ere, arazorik izan dutenik uste. Bertako lagunak, Harrera Sareko kideetatik aparteokak ere egin dituzte la diote. Harrera Sareko kideek, ordea, nabaritu izan dituzte gaizkiulertuak. «Hizkuntzarekin ere arazorik ez dutela diote. Gu izango gara orduan, arabe gutxiegi dakigunak!», diote barrez. «Gertatu izan zaigu, etxera gonbidatu bazkaltzera, egun batzuk lehenago hitzartu ordua, eta eguna iristean, ordu erdi lehenago jakin ez direla etorriko. Eta zuzenean niri abisatu gabe, nahiz eta nire telefono zenbakia edukil!». «Guk ere gonbidatu genituelako», gogorarazi du beste batek. «Komunikazioa erlatibizatu egin behar da. Ez dira gai ezetz esateko, beste batzuekin konpromisoa hartu dutelako».

Harrera Sareko kideek onartzen dute agian gure kulturaren parte dela gauza horiei garrantzia ematea. «Modu desberdinean egiten ditugu gau-

zak, kulturala da. Gonbidatzen banauzu, eta ezin badut joan, guretzako logikoa da jakinaraztea. Baina gogoratzen naiz Saharan izan ginenean, iluntzeko 20:00etan iritsi ginela etxe batera, jakinarazi gabe, eta afaldu eta lotan geratu ginen. Zeharo lotsatuta nengoen! Baina beraietzako ez zen arazo».

Integrazioaren tranpaz ere hausnartzen dute. «Hemen, badirudi kanpotik etorri direnek integratu behar dutela gure ohituretan. Baina, integratu ez, denok egokitu behar dugu. Integratzea da gurera derrigorrezkoa. Gu ere, kanpora joaten garenean, ez gara integratzen. Oso ondo tratatzen gaituzte, eta hori ez da beraien egunerokoa izaten. Europarrak izanda, zorte handia dugu».

Hasieran arazorik izan ez dutela aipatu arren, bururatu zaie zer edo zer Harrera Sareara gerturatutako erabilzaileei ere. «Batzuk uste dute gaiztoak garela. Aurreiritziak dauzkate». Eta jasotako laguntzagatik eskertuta, bueltan emateko askorik ez dutela dioten arren, ahal dutena egiten dute. «Beste batzuei laguntzen saiatzen gara, sarearen berri emanez. Eta gu bezalako gazteon irudi ona ematen saiatzen gara, bertakoek ere aldatu dezaten, marokiarrekiko daukaten irudia. Elkarbizitza ona da, pentsamoldeak aldatzeko, irekitzeko».

Harrera Sareak hainbat behar ditu egun: laguntza ekonomikoa, etorriko diren pertsonak erroldatzeko prest dauden herritarrak eta taldea sendotzeko partaide berriak.

Sareak ere, beharrak

Hau guztia antolatzeko, «beharren arabera», bilerak egiten dituzte Harrera Sareko kideek. Baina denarekin aurrera segi ahal izateko, Harrera Sareak berak hainbat behar badituela aitortzen dute. Besteak beste, laguntza ekonomikoa, etorriko diren pertsonak erroldatzeko prest dauden herritarrak eta taldea sendotzeko partaide berriak.

Azken puntu horietan jarri dute indarra. «Bilerak Biteri kultur etxean egiten ditugu, eta irekiak dira. Edonor dago gonbidatuta» **K**



Bigarren eskuko azokan postua jarriko du aurrerantzean Harrera Sareak, dirua lortzeko.

Formakuntza saioak, merkataria eta ostalari txikiei begira

Aurrenekoa otsailaren 18an izango da, eta izen-ematea irekita dago. Udaleko Merkataritza Planean jasotakoak dira.

EKONOMIA MERKATARITZA

Udalak udazkenean aurkeztutako Merkataritza Planaren barruan hainbat ekintza aurreikusituz zituen merkataria eta ostalari txikiei begira. Horieta-ko batzuk dira, atzo aurkeztu zituzten formazio saioak. Patxi Ibarguen zinegotziak azaldu zuen «merkataritza txikiaren egoera larria» dela, eta «dauzkan erronka haundiei aurre egiteko formakuntzaren alde» egin dutela, Berriak elkartearekin elkarlanean.

Bazkide eta ez-bazkideek irekita, izen-ematea

Formazio saioak bi bloketan banatu dituzte: komunikazioa lantzeko izango da aurrenekoa, eta negozioen espazioak antolatu eta pertsonen arteko harremanak lantzeko, bestea. Bloke bakoitzean hiru saio izango dira: bi saio teoriko-praktikoak, eta horietan landutakoaren berri emango duen eredu erreal bat erakutsiko duen tertulia.

Izena blokeka ematea gomendatu badute ere, saioko ere eman daiteke, eta Berriak-eko bazkide direnek, zein ez direnek hartu dezakete parte. Horretarako, Berriak elkartera (943 33 30 49/berriak@hernanidendak.eus) edo Udaleko turismo eta merkataritza sailera, Biterira (943 33 70 29/gurutze-a@hernani.eus) jo daiteke.

Animatzeko deia ere luzatu zieten merkataria eta ostalariari. «Elkartean daudenak eta ez daudenak gonbidatzen ditugu,



Marta Zulaica, Patxi Ibarguen eta Gurutze Amigorena, aurkezpenean.

KOMUNIKAZIO ESTRATEGIKOA

1. SAIOA: KOMUNIKAZIO ESTRATEGIKOA

OTSAILAK 18

14:15-16:00 Iturrolan. Ordenagailua eramatea gomendatzen da. Bestela, mugikorra.

2. SAIOA: ARGAZKIAK EDITATZEKO APLIKAZIOA MUGIKORREAN

OTSAILAK 25

14:15-16:00 Iturrolan. Mugikorra eraman behar da.

3. SAIOA: KAFE TERTULIA: ZUZEU SARE SOZIALETAKO ESPERIENTZIA

MARTXOAK 3

14:15-16:00 Berriak elkartearen bulegoan. (Andrekale kalea)

NEGOZIOEN ESPAZIO FISIKOA ETA PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK

1. SAIOA: NEURE NEGOZIOAREN JABE

MARTXOAK 12

14:15-16:00 Iturrolan.

2. SAIOA: ORDENA ETA ANTOLAKUNTZA MERKATARITZA TXIKIAN

MARTXOAK 17

14:15-16:00 Iturrolan.

3. SAIOA: KAFE TERTULIA: MERKATARITZA DINAMIZAZIO SAIOA

MARTXOAK 24

14:15-16:00 Berriak-en bulegoan.

Izen-emateak: Berriak elkartearen edo Udaleko turismo eta merkataritza sailean.

Berriak denentzako babes-leku izan dadin. Ez gara elkarren arteko kompetentzia, lankide baidak, azaldu zuen Marta Zulaicak, Berriaketik.

Maiatzean, gehiago

Formazio saio hauek otsaila eta martxorako antolatu dira, baina, Gurutze Amigorena, turismo teknikariak aurreratu zuen

maiatzean ere gehiago izango dela. «Maiatzaren 5ean hasita, Instagram lantzeko beste ikastaro bat emango da; bat euskeraz, eta bestea, gaztelaniaz».

Asteazkenean hasiko diren saioei dagokienez, berriz, Ibarguenek gaineratu zuen ikastaroak euskeraz emateko prestatu direla, baina parte-hartzaileen arabera «egokitu» egingo direla. **K**

Banda eta Inude eta Artzainak, iragarle

Sumatzen da Inauteriak badatozela. Kaldereroak pasata, Inude eta Artzainak iritsiko dira bihar. Musika Bandak ere kontzertua emango du.

HERNANI INAUTERIAK

Inauteriak iragartzen aurrenekoak Kaldereroak izan ziren, eta asteburu honetan, Urumea ikastolako Inude eta Artzainen konpartsa eta Musika Bandak hartuko dute txanda. Bihar aterako dira biak.

Kalera ateratzen aurrenekoa, bihar, Urumea ikastolako Inude eta Artzainen konpartsa izango da. Eguerdiko 11:45etan aterako da Gay Murretik, eta Kaxkoan barrena ibilita, Plazan egingo dute ekitaldi nagusia.

Denera, 160 bat umek hartuko dute parte 27garren edizio

honetan; tartean izango dira, 48 dantzari, txarangako musikari eta 50 bat danbor-jole eta garai bateko pertsonaien paperean ariko direnak.

Haiek bukatuta, Musika Banda ariko da 13:15etan udal-tereko arkupean, Inauterietako doinuak jotzen. **K**

Neska-mutilen heziketaz gaur, Sancho eta Wolfram

Biterin ariko dira hizketan, 09:30etatik 12:30etara. Egizabal klowna ariko da gero. Bestalde, prest dira ekitaldi gehiago ere.

LANGILE 50 URTE

Ikasturtea hastearekin batera murgildu zen Langile ikastola 50garren urteurreneko ospakizunetan, eta gaurkoa da hurrengo hitzordua. Biterin, 09:30etatik 12:30etara neska-mutilen heziketaz eta sexualitateaz hitz egingo dute Clara Wolfram, berdintasunean adituak, eta Nerea Sancho, sexologoak.

Bukatzeo, *Klownklusioak* aterako ditu Bea Egizabal klownak.

Bazkari txartelak, salgai

Ez da hau datorren ekitaldi bakarra, ordea. Esaterako, maiatzaren 16rako bazkaria antolatzen ari dira Floridako lokaletan ibili ziren Langileko ikasle, irakasle eta guraso ohientzat. Txartelak gaur eta hilaren 23an egingo dira salgai Etxeberriko Auzokide elkartearen, 11:00etatik 13:00etara, eta otsailaren 20 eta 27an Biterin, 17:00etatik 19:00etara.

Lehenago, martxoan egingo dira ekitaldi gehiago; diskofesta 13an, eskolako emanaldi nagusia 14an edo *Kantu Kantari* haur ikuskizuna, 28an. **K**

Atzerritartasun Legeari buruz, informazio saioa

Asteazkenean izango da Biterin, Amher eta Udalak antolatuta, 19:00etan. Aurretik izena emateko eskatu dute.

AMHER ATZERRITAR LEGEA

Udalarekin eta Sos Arrazakeriarekin elkarlanean, Atzerritartasun Legearen inguruko informazio saioa antolatu du Amher elkarteak, datorren asteazkene-rako, Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzuaren eskutik. Biteri kultur etxean egingo da, otsailaren 19an, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Aurretik, izen-ematea

Saioa gidatzeko, eta lege honen inguruko azalpenak eman eta zalantzak argitzeko, Sos Arrazakeria elkartearen Elena Stati etorriko da. Legeak nori eta nola eragiten dien azalduko du, noizkoa den, zein aldaketa izan dituen...

Asteazkenean Atzerritartasun Legearen inguruko lehenengo saioa dela argitu dute. Parte hartzea irekia da, baina hobeto antolatzeko, bertaratu nahi dutenei izena emateko eskatu diete. Horretarako, izena eta abizenaren berri eman behar da, Amher elkartearen telefono mugikorrera deituta: 671 116 414 telefonora, hain zuzen. **K**



Esti Amenabarro eta Marian Bilbatua aritu ziren hizketan.

Motxiladun umeak kontuan, eskolan

HEZKUNTZA HEZKUNTZA ESKOLA Otsaileko Hezkuntza Eskola saiora Motxiladun umeen gaia ekarri zuen Hezkuntza Plataformak, ostegunean. Bertan

aritu ziren hizketan Esti Amenabarro eta Marian Bilbatua hezkuntza adituak, haur hauek behar dituzten zaintza eta arreta espezifikoaz jabetzeko.

'Ikimilikiliklik', beldurrei aurre egiteko haur antzerki magikoa

Biterin egingo da gaur, 12:00etan, 6 urtetik gorakoentzat. Sarrerak salgai daude 3 euroan.

KULTURA HAUR ANTZERKIA

Marie de Jongh konpainiak mundu liluragarri eta magikoan murgiltzen den ikuskizun berria taularatuko du gaur Biterin: *Ikimilikiliklik*. Eguerdiko 12:00etan ikusi ahal izango da 6 urtetik gorako haurrei zuzendutako antzezlan hau. Sarrerak 3 euroan daude salgai, Biterin.

Ekhi eta sorginak

Protagonistak, Ekhi, beldurra



Lehen sorginei beldur izan, eta sorgin bihurtu den neska da protagonista.

zientzietan sorginei, baina, denborarekin, 'sorgin' bihurtu da.

Beste protagonista hitza izango da. Horrela, istorioan zehar

beldurraren inguruko hausnarketak egingo da.

Emanaldian zehar musika izango dute lagun, antzezleek. **K**



JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Urak eta gardentasuna

Urtarrila erdialdera prentsa nazionalako komunikabide nagusiek zabaldu zuten Bartzelonako Osasun Orokorreko Institutuaren (ISGlobal) txostena: *'Europako maskuri minbizien %5 iturriko uraren trihalometanoenara (THM) esposizioan egoeteari egotzi dakizkioke. Espainia da Europako laugarren herrialdea, ur horri lotutaok maskuri minbizia kasu gehien dituztenetan'*.

Ur Horniduraren eta Saneamenduaren Espainiako Elkarteak (AEAS) iturriko uraren kalitatea zein den egun berean ziurtatu zuen: *'Kasu guztietan Espainiako araudi zorrotza betetzen du'*.

Urtarrilaren 17an, Añarbeko Urak-ek ohar hau igo zuen bere webgunera: *'Añarbeko Urak-ek esan dezake bere hornidura-sistematik datorren urak osasun- eta kalitate-baldintza onenak dituela, eta egunero kontrolatzen da. Kontsumitzaileak lasai egon daitezke.*

Gipuzkoan hori da herritarroir iritsi zaigun gauza bakarra, eta ez lurraldeko prentsaren bidez, dena isilarazi baitu, gaiak gurekin zerikusirik ez balu bezala. Ontziraturako ur kontsumitzaileen artean hirugarrenak izanik, zergatik dira Espainian txorrotako uraren kontsumoari lotutako maskuriko minbizia kasuak bikoitzak (%11), txostenaren arabera, Herbehereetan, Eskandinavian eta Europa erdialdean baino, eta horietan ez dira iristen batez besteko %0,6ra (Alemanian %0,2), eta iturriko ura edatea orokortuago dago beraien etxe eta jatetxeetan? Bada zerbait bat ez datorrena.

Desfase horren arrazoiak berri emateko, herrialde horiek nola egiten duten jakin behar dugu, eta gaia osasun publikoari dagokionez, informazio osoa edukitzeko, Osakidetzaren esku dagoen Gipuzkoako estadistika

klinikoak argitaratu behar da... Hau ere, isiltasun susmagarri batean murgildua dago.

Gipuzkoako prentsa 'poto-loak' gaia isildu du: iritzi-gutunak zentsuratu ditu, eta garrantzia handiko eta gardentasun gutxi gairekiko kontzientzia eta neurriak hartzeko informazioa ukatzen digu gipuzkoarroi... ohikoa duten gisan.

Prentsa morroia, gobernuak haurrak bezala tratatu gaitzan ahalbidetzen duena, gaizki ari diren gurasoek egiten duten bezala. Ez dute erabakirik hartzen harik eta zahartzaroan saihiestezina den 'erupzioa' agertzen zaien arte, istripuz, Zaldibarko zabortegean edo amiantoaren gaixotasunarekin bezala, edo zabor-janarekin agertzen den obesitate kronikoa bezala... Eta gure iturriko uraren kloroari erantsitako fluorra?

Iulen Lizaso Aldalur

Bihotz-Biriketako Suspertzea, gaur

DYA IKASTAROA

Ikastaroa emango du gaur DYAk 16:00etatik 18:00etara Inmakulada ikastetxean, Bihotz-Biriketako Susperterearen bueltan. Haur eta helduei zuzendutako tailerra da. Haurrentzat, doan da, baina 18 urtetik gorakoek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta aurretik, izena eman behar da: 943 46 46 22 edo www.DYAgipuzkoa.com.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



JOXE MARI AUZMENDI MATXAIN

Herenegun hil zen, 66 urte zituela.

- Amesten degun bakoitzean izango gera zurekin -

Emaztea: Gloria Sarasa; alabak: Maialen, Izaro eta Olaia; anai-arrebak: Andoni (†) eta Mari Carmen, Julian eta Espe, Mariage, Iñaki eta Lupe, Lurdes eta Joserra, Maribi eta Josu, Jon eta Loli; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Gonbidatzen zaituztegu **GAUR, LARUNBATA**, goizeko **BEDERATZIETAN, POLLOEKO ERRAUSTEGIAN** egingo den agurrera. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko otsailaren 15ean



JOXE MARI AUZMENDI MATXAIN

Mila esker Joxe Mari, emandako guztiagatik.



Hernanin, 2020ko otsailaren 15ean



JOXE MARI AUZMENDI MATXAIN

Ez diren gauzak ere, agian, badira.

Bizitza, ez diren gauzez ere osatzen delako.

IZAROREN LAGUNAK

Hernanin, 2020ko otsailaren 15ean



JOXE MARI AUZMENDI MATXAIN

Eskerrik asko gure bizitzaren parte izateagatik.

AUZMENDI TEJEDOR FAMILIA

Hernanin, 2020ko otsailaren 15ean



FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

* Beilatokiak

* Errausketak

* Lekualdatzeak

* Eskelak, koroak...



Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Gidabaimena ateratzeko azterketa euskeraz egin duten 127 lagunetatik 9k saria, Buruntzaldean

Buruntzaldeko Udalek, autoeskolekin elkarlanean, *Gidabaimena Euskeraz* kanpaina jarri zuten martxan orain 10 urte. 2019an 124 lagunek egin dute azterketa euskeraz, eta 9k irabazi dute saria.

EUSKERA GIDABAIMENA EUSKARAZ

Atzo bildu ziren Hernanin Buruntzaldeko Udaletako eta autoeskoletako arduradunak, *Gidabaimena Euskeraz* kanpainaren barruan 400 euro arteko sariak zozketatzeko, 2019an *Gidabaimenaren* atal teorikoa euskeraz egin dutenen artean.

Denera, 124 ikasle izan dira 2019an, eta 9 lagun egokitu zaie saria; herri bakoitzean dagoen autoeskola adina saritu izan dira.

Hernanin eta Astigarragan, lau saritu

Zazpi dira denera sei herrietan dauden autoeskolak, baina batzuk bi herritan daude: Hernanin, Lagunak, Hernani eta Otamendi; azken hau, Astigarragan ere bai; Andoainen, berriz, Bengoetxea eta Mendi; Lasarte-Orian, bestalde, Mugica; eta Urnietan eta Usurbilen, Solozabal.

Horregatik, bederatziz sari zozketatu ziren atzo, eta ondorengoak izan dira irabazleak: Hernanin, Asier Lako Maiz, Mi-

kel Lizeaga Romano eta Pettan Uralde Conde, hirurak Otamendikoak; Astigarragan, Peru Ruiz Irisarri, autoeskola berekoa; Andoainen, Eider Sagarzazu Olaskoaga eta Garazi Urkola Arsuaga, Mendi autoeskolakoak; Lasarte-Orian, Maddi Sukunza Gomez, Mugica autoeskolakoak; Urnietan, Ane Loitegi Ugalde, Hernani autoeskolakoak; eta Usurbilen, Imanol Furundarena Maiz, Solozabal autoeskolakoak.

Berriro ere, goraka

Zozketa egiteaz gain, bertarututako zinegotziek egitasmoa martxan jarri zenetik orain arteko errebaso egin zuten.

Oier Agirresarobe Lizaso, Hernaniko euskera zinegotziak nabarmendu zuen «*Gidabaimena Euskeraz* ekimenak dagoeneko 10 urte» egin dituela, eta denbora horretan, «1027 lagun» izan direla *Gidabaimenaren* atal teorikoa ateratzeko azterketa euskeraz egin dutenak. Nabarmendu zuen, baita ere, «egitasmoa martxan jarri zenean, 2014an, 34 ikasle» izan



Buruntzaldeko euskera zinegotzi eta autoeskoletako ordezkariak, zozketa egin ondoren.

zirela. «Gero, gorakada izan zen, eta atzetik, beherakada. Orain, badirudi, berriro ere gorakada bizitzen ari garela». 2014an 34 izan ziren; 2011n, 60; 2012an, 112; 2013an, 135; 2014an, 140; 2015ean, 113; 2016an, 96; 2017an, 103; 2018an, 110; eta 2019an, 124.

Jon Antxordoki Rekondo, Lasarte-Oriako euskerako batzordeburua, bestalde, ikasleetan «iaztik %10eko igoera» izan delako «proiektuarekin gustora» azaldu zen. «Horrela jarraitu behar dugu. Gazteek D erudian

ikasten dute, eskolaz kanpoko jarduerak ere euskeraz egiten dituzte, eta *Gidabaimena* ateratzeko ere euskeraz behar du. Ez dakigu nola landu gehiago, baina segiko dugu horretan. Hutsunea atal praktikoa daukagu. Saiatuko gara pixkanaka hori konpontzen».

Azkenik, Oxkar Santamaria Pikabea, Usurbilgo euskera zinegotziak eskerrak eman zizkien Buruntzaldeko Udalei, «egitasmo polit honi hasiera eman eta eusteagatik». Eta baita

ere autoeskolei, «ahalegina egin dutelako herritarrek animatu, prestakuntza euskeraz eman eta bidea irekitzeko». Nola ez, herritarrei ere eskerrak eman zizkien, bide horri ekiteagatik.

18 urte egiten dituztenei, gutuna

Kanpainarekin segi egingo dutela adierazi zuten, eta argitu zuten, bertero bezala, maiatzean gutuna bidaliko zaiela 18 urte egiten dituztenei, egitasmoaren berri emateko. **K**



Plaza Berrin elkartu ziren herritarrek, Zaldibarko gertaerak salatzen.

«Hondakin kudeaketa osasuntsu baten alde», kalera

HERNANIN ZERO ZABOR ZALDIBAR Errausketaren Aurkako Mugimenduak mobilizazioak deitu zituen asteazkenean hainbat herritan, eta Hernanin Zero Zaborrek bat egin zuen deialdia-

rekin. Zaldibarko zabortegiko gertaeren harira, azaldu zuten «lehentasuna desagertuta dauden bi langileak erreskatatzea eta inguruko herritarren osasuna bermatzea» dela. Era berean, sa-

latu zuten «Zaldibarko eskandalua modu lotsagarrian kudeatzen ari direnek erraustegia inposatu nahi» digutela. Horrela, «hondakin kudeaketa osasuntsu baten alde», kalera atera ziren.

Sagardo dastatze gidatua doan, ostiralez

SAGARDOGINTZA IPARRAGIRRE

Otsailaren 21erako sagardo dastatze gidatua antolatu du Iparragirre sagardotegiak, Euskal Sagardoaren laguntzarekin batera. Iluntzeko 19:30etatik 20:30etara izango da Iparragirreko aurtengo sagardo berriak dastatu eta haien ezaugarrien berri jakiteko. Bertan parte hartzea doan izango da, baina izena eman behar da 943 55 03 28 telefonoan.

'Koaderno gorria', ikuspegi feministatik

LITERATURA LIBURUTEGIA

Emakumeen euskal literatura ikuspegi feministatik aztertze-ko hurrengo mintegia asteartean, otsailaren 18an egingo da, 19:00etan liburutegian. Kattalin Miner kazetari eta idazle hernaniarrak gidatuko du saioa, eta Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* aztertuko da.

Txartelak salgai, Inauteri bazkarirako

KONTRAKANTXA INAUTERIAK

Inauterietarako bazkaria eta tribial tematikoa prestatu ditu gazte asanbladak, Kontrakantxa Gaztetxean. Otsailaren 22an egingo dira biak, eta jakinarazi dute txartelak salgai daudela dagoeneko, 10 euroan, Garin eta Goiz Argi tabernetan. Bestalde, azaldu dute 1920eko hamarkadan girotutako bazkaria izango dela, eta parte hartzeko gai horren bueltako mozorroa eramatea beharrezkoa izango ez bada ere, animatzeko dei egin dute. Saria izango da.

Kalderero konpartsa zaratatsua irtengo da gaur Ergobiatik

17:30etan abiatuko da eta kaleetan zehar kalejiran ibili eta gero 20:00ak aldera amaituko da Joseba Barandiaran plazan.

KALDEREROAK INAUTERIAK

Zer bait beranduago beste herri-tan baino, baina Astigarragatik ere pasatzen da Hungariara bueltako bidea, kaldereroentzat, eta urtero bezala, herrian egingo dute gaur azkeneko parada. 17:30etan Ergobiatik abiatu, eta Astigarragako kaleetan barrena ibiliko da Kaldereroen konpartsa, gaur arratsaldean.

Kalejira Joseba Barandiaran plazan amaituko da 20:00etan

Eta nola ez, ez dituzte faltako lapiko eta zartagiak. Mailu bana eskuan hartuta, kolpe eta kolpe emango diete, herrian hotsik falta ez dadin, azkeneko momentura arte.

Baina kolpe hotsekin bakarrik ez, kantuan ere alaituko dituzte Astigarragako kale eta plazak. Eta betiko moduan, zartagi, lapiko eta mailuak bezala, hartza ere lagun izango dute, ibilbide osoan zehar.

20:00ak aldera espero da Joseba Barandiaran plazara iris-



Kaldereroak Ergobiko plazatik irtengo dira arratsaldean.

tea eta kanpamendua bertan ezarriko dute.

Otsailean eguraldiaren zain ere egoten da jendea, horrek baldintzatu bait dezake konpartsa. Esan, gaurko ez dela eguraldi txarrik espero eta 20 gradutik gora igoko da temperatura. Beraz, ez dago aitzakiarik kalera ez irteteko.

Zipotzan egingo dute afaria 21:00etatik aurrera

Baina ez dira tripa hutsarekin

bueltatuko kaldereroak, Hungariara. Ibilbidean zehar geratzen diren lekuetan pintxoak eta jan edana izaten dute indarberritzeko eta festarekin jarraitzeko. Konpartsa ibilbidea osatu ondoren, afaria ere egingo dute Zipotza elkartearen, agurrik beroena emateko.

Bertan afaldu nahi duenak, txartelak salgai dauzka Zipotza tabernan 20 euroren truke. 21:00etan hasiko dira afaltzen elkartearen bertan. **K**

Iñude eta artzainen konpartsako danborradan parte hartu daiteke

Bigarren urtez jarraian antolatuko da datorren asteko igandean, eta danborradarako izenematea etzi amaituko da lkatza tabernan.

DANBORRADA IÑUDE ETA ARTZAIK

Bigarren urtez jarraian Astigarragan Iñude eta artzainen konpartsa irtengo da ospakizuna pasa den urtean berreskuratu eta gero. Inauterien bueltan iñude eta artzainen konpartsa egoten da herri askotan eta herrian ere egingo da aurten 2002 eta 2012 urteen artean eta pasa den urtean berreskuratu ondoren. Inauteri igandean, hau da otsailaren 23an, iñude eta artzainen konpartsa Astigar dantza taldeak antolatuko du. Astigarrek berreskuratu zuen iaz iñude eta artzaiak, partehartze zabalagoa eskaintzen baitute.

Gainera, ikuskizun horren

barruan danborrada joango da. Parte hartzeko baldintza bakarra dago, 14 urte edo gehiago izatea, eta noski, ondo pasatzeko gogoia ere bai. Ikatza tabernan egongo da izenemateko aukera etzira arte, otsailak 17. Bertan, orria bete behar da.

Danborrada entseguak etzi astelehenean eta ostiralean

Danborradarako bi entsegu ere egingo dira. Etzi, astelehenean, eta ostiralean, otsailaren 21ean, egingo dira, 19:00etan hasita Herri eskolako aretoan.

Iñude eta artzainen egunean erabiliko diren janzkiak ondorengoak dira: galtza beltzak, alkandora zuria, baserritarren

zapia eta txapela. Danborrada guztietan bezala barrilak eta danborrak erabiliko dira.

Desfilea Ergobiako plazatik abiatuko da, 11:30etan, eta herria zeharkatu ondoren, Joseba Barandiaran plazara iritsiko dira ordubetera, eguerdiko 12:30etan. Bertan, plaza dantza saioa eskainiko dute, herritar guztientzat.

Astigar taldeko dantzariak antzeztu eta dantzatuko dute iñude eta artzainen paperean; baina kalejiran parte hartzea, irekia izango da, garaiko jantziekin mozorrotuta, zenbait pertsonaia irudikatuz. Horretarako, gainera, jantziak banatuko ditu Astigarrek, nahi duten guztientzat, bere egoitzan.

Antzerkiari laguntzeko, noski, musikaririk ez da faltako: txaranga, danborrada, txistulariak, trikitilariak... **K**



Pasa den urtean jolastokian antolatu zituzten jokuan Herri Eskolan.

'Superheroiak' herri eskolaren erreskatera

Kiroldegian emanaldi potoloa antolatuko dute datorren ostiralean, 14:30etan, kanta, dantza eta antzerkiarekin.

HERRI ESKOLA INAUTERIAK

Inauteriak izango dira protagonista nagusiak datorren astean eta elkarte desberdinak horretarako prestatzen ari dira, baita Astigarragako Herri Eskola ere. Datorren ostiralean emanaldi berezia antolatu dute, arratsal-

deko 14:30etan hasita, kiroldegian. Aurtengo festa potoloa izango da eta bertako emanaldian protagonista nagusiak Superheroiak izango dira.

Bi urtetik behin egiten duten moduan, maila bakoitzak kanta, antzerki, dantza... bat eskainiko du, antzeppen orokor baten barruan. Aurtengoa, printzipioz behintzat, irudizko hiri bat izango da denak bilduko dituen. Eta Superheroiak gaia hartuta bertan izango dira denentzako ezagunak diren superheroi desberdinak. **K**



Gurasoak eta haurrak elkartzeko dirak.

Gurasolagun egitasmoa etzi egongo da

AEK EUSKARA

Haurrak eta gurasoak kafe baten bueltan elkartu eta euskeraz hitz egiteko egitasmoa da Gurasolagun, eta astelehenero biltzen dira 16:30etatik 18:30etara, eskolan. Otsaila amaitzeko bi astelehen geratzen dira eta bietan, otsailaren 17an eta otsailaren 24an egongo dira saioak.

Elkarte gastronomiko berri bat ireki nahi da eta bazkideak behar dituzte

URUMEA BERRI ELKARTEA

Urumea Berrin elkarte gastronomiko berri bat ireki nahi da eta bazkide berriak behar dituzte. Urumea Berri Gastronomi Kultur Elkarte izango du izena eta bazkide izateko izenematea jarri dute martxan. Bazkide kopurua mugatua da eta muga 100 bazkideetan jarri dute. Informazio guztia ondorengo helbide elektronikoan lortu daiteke: www.urumeaberrigke.org. Urumea Berri auzoa eraiki berria da eta hazten doa, pixkana bizitza gero eta gehiago duen gunea izango da eta elkarte gastronomikoa beste pauso bat da prozesu horretan.

Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze, errugbi inklusiboaren bertso bazkarian

Bihar errugbi inklusiboaren aldeko bertso bazkaria antolatu du Hernaniko Errugbi elkarteak eguerdiko 14:00etan Astigarragako Ipintza sagardotegian bertso final nagusiko txapeldun eta txapeldun ordearekin.

BERTSOLARITZA ERRUGBIA

Hernaniko errugbi elkarteak, errugbi inklusiboaren aldeko bazkari bat antolatu dute bihar Ipintza sagardotegian. Ez da edonolako bazkaria izango gainera, bertsoz girotatutakoa izango da hain zuzen. Izan ere, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze izango dira kantuan.

Hernani errugbi taldekoek, bertaratzeko deia luzatu dute, errugbi inklusiboaren aldeko bazkarira animatuz, eta giro paregabeaz gozatzeko.

Bertso bazkarira animatu direnak eta lekua dutenek puntako bertsolariak izango dituzte aurrez aurre.

Ipintza eta Hernaniko errugbi inklusiboko kideen arteko lotura estua da. Ipintzakoa den Agin Laburu bertsolariak Gipuz-

koako Txapelketaren finalean, Hernaniko errugbi inklusiboari erreferentzia eginez bukaera polita eman zion kartzelakoari, autismoa duen mutikoaren aitaren paperetik: Honela zioen hiru bertsoetako lehenengoak «Nere semeak autismoa du denek jakin dezatela / gaixotasun bat izan daiteke baina ez da hain ergela / laguntza behar du Jonek eta laguntza hori dena dela / bereizi ezker bi gela seguru lortzen ez dela / nik hezkuntzari eskatu diot laguntza eman dezatela / beti baietz esanagatik entzun ez balu bezela».

Bihar gaiaren inguruan Lujanbio eta Mendiluzek ere seguru bertso sorta ederrak abestuko dituztela.

Kirola, bertsolaritza, inklusioa... ertz asko ikutuko ditu biharko bertso bazkariak. **K**



Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze bihar Ipintzan ariko dira bertsoan.

Erreklamazio epea irekita dago

UDALA DIRULAGUNTZAK

2020-2023 urte arteko dirulaguntza planaren aldaketari erreklamazioak eta iradokizunak egiteko epea otsailaren hasieran ireki du Udalak eta martxoaren 8ra arte egin daitezke. Aipaturiko epean, erreklamaziorik edo iradokizunik ez bada, behin betiko onartutzat joko da.

Bazkaria hilaren 23an, Petritegin

GALTZAUR SAGARDOTEGIA

Galtzaur jubilatutako elkarteak pasa den urtarilean egin zuen batzarrean urte osorako egitaraua antolatu zuten. Irteerak, bazkariak, ibilaldiak, jokuak... antolatu dituzte. Urtarilean bazkaria egin zen. San Sebastian egunean, eta otsailaren beste bazkari bat antolatu dute. Datorren igandean, 23an, Petritegin elkartuko dira sagardotegiko menua dastatzera. Martxoaren 21an Iratxera irteera egingo dute, apirilean hiru egunetarako Avilara joango dira, pazko astean, maiatzean Azpeitira joango dira eta ekailaren beste hiru egun Teruelera.

Gipuzkoako historia nafarra azalduko du Beñi Agirrek

Hitzaldia otsailaren 28an eskainiko du Kultur etxean, 19:30etan eta bertan bere azken liburuaz ariko da gaztelaniaz.

HITZALDIA HISTORIA

Harituz elkarteak antolatuta, *Historia Nabarra de Gipuzkoa. De su origen, conquista y fueros* liburuaren inguruan hitzaldia eskainiko du, otsailaren 28an, Beñi Agirre hernaniarrak. 2017an argitaratu zuen Gipuzkoako Historia Nafarra liburuaren euskeraz, eta 2019an gaztelarazko bertsoa kaleratu zuen Agirrek. Kultur etxean eskainiko du hitzaldia, 19:30etan hasita, eta gaztelaraz izango da. Beñi Agirrek, bertan, gaur egungo Gipuzkoaren historia nafarra azalduko du. «Jakin, 1200eko gaztelarren konkistak ekarri zuela muga hori. Baskoen eta nafarren banaketa horrek eragile jakina du. Gaur arte iraun



Beñi Agirrek pasa den urtean aurkeztu zuen liburuaren gaztelaniazko bertsoa.

du eta goizeko lanbro zikin baten moduan ezkutatzeko digute Adarrako ikusmira».

Liburuan agertzen denez gaur ezagutzen dugun Gipuzkoa 1212an hasi zen egituratzen, Navas de Tolosako gudua ondoren, gaztelartutako Lope de Haroko kondeak Durango aldeko guztia Bizkaian sartu zuenean. «Aurretik ez zegoen Gipuzkoarik, Nafarroako erresuma zen hau, tenentzia izeneko barrutietan egituratuta. Gaur ezagutzen ditugun probintziak gazte-

larrek eta frantsesek konkistatu eta euren arteko banaketaren emaitza besterik ez dira. Hori jakinda bakarrik uler dezakegu Nafarroa eta Euskal Herria osotasunean».

Agirrek dio liburu honetan ez dela soilik Erdi Aroa jorratzen. «Karlismaldiak, Foruen desagertaraztea, Ilustrazioa eta Iraultza frantsesa, Lizarrako 1931ko Estatu baterako Estatutua, ekonomia eta populazioaren migrazioak, Iraultza industrialak, etab. ere jorratzen dira». **K**

Mus saioa hurrena, ehuntzen jarraitzeko

Ostegunean, 'Ezagutu Astigarraga' hirugarren saioa eduki zuten eta hurrengoan musean ariko dira Galtzaur jubilatuen etxean.

GALTZAUR ASTIGARRAGA EHUNTZEN

Astigarragako Udalak belaunaldien arteko *Astigarraga ehuntzen* proiektu berriaren laugarren saioa otsailaren 27rako antolatuko dute. Ostegun honetan Astigarraga ezagutu zuten elkarrekin eta 27an mus jokoan arituko dira. Jokoa azaldu eta jokatzeko aukera izango dute, hortaz. Goizeko 11:30etatik 14:30etara, Galtzaur jubilatuen egoitza elkartuko dira.

Proiektuan Martuteneko DBH 3. eta 4. mailako ikasleek eta herriko adineko pertsonak (55+) ari dira partehartzen, Bat, Bi ta Hiru enpresako bi dinamizatzailez lagunduta. Proiektu honen helburua belaunaldi ezberdinen arteko harremana sendotzea da; interes komunak elkarbanatuz eta guztiek duten

ezagutza partekatuz.

Zazpi saio egingo dira, saio bakoitzean gai ezberdin bat landuko da eta dagoeneko hiru egin dituzte. Hilaren 27koan iritsiko dira bidearen erdira, laugarrenera.

Beste hiru saio geratuko dira martxoan programa amaitzeko

Saio bakoitzean ikasle talde ezberdin bat hari da partehartzen eta adineko pertsonak ordea, nahi duten saio guztietan hartu dezakete parte.

Geratzen diren beste hiru saioak ondorengoak dira: martxoaren 5ean *Do it yourself* Lo-rategiak, martxoaren 10ean Sexualitate eta martxoaren 26an amaituko da programa sukaldaritzatzaileekin.

Oraingoz eginiko hiru saioetan belaunaldi desberdinak ederki moldatu dira eta bata bestea ezagutzeko balio izan dute. Geratzen diren saioetan elkarlan eta ehuntze hori sendotuko da gai mamitsuak jorratuko direlako eta arinekin uztartu. **K**

'Bidaia bat baino gehiago', haur sahararrak hartzeko kanpaina

'Oporrak Bakean' programa aurkeztu da eta euskal biztanleak haur errefuxiatu sahararrak udan harreran hartzera animatu nahi dira.

SAHARA OPORRAK BAKEAN

Oporrak Bakean programa asteartean aurkeztu zen Donostiako udaletxean. Programa honetan haur errefuxiatu sahararrak udan Euskal Herrian hartzeko balio du eta bertan azaldu zuten aurten ehun bat familia behar dituztela haurrak hartzeko, *Bidaia bat baino gehiago* kanpainaren baitan. Iaz 289 adingabe etorri ziren Euskal Autonomi Erkidegora, eta udara honetan beste horrenbeste ekarri nahi dituzte.

Horretarako ehun bat harre-ra familia behar dira. Saharako herriak 40 urte baino gehiago daramazki errefuxiatuen kanpamenduetan bizitzen. Kanpaleku horietan 14 urtetik beherako 56.000 adingabe bizi dira, eta horietatik %30ek hazkunde defizita dute klima eta elikadura baldintza gogorren ondorioz.

Oporrak Bakean programak



Donostiako udaletxean aurkeztu dute 'Oporrak Bakean' programa.

10 eta 12 urte bitarteko haurrak udako bi hilabeteetan euskal familiekin bizitzea errazten du, basamortuko baldintza gogorretatik aldi baterako aldentzeko, elikadura egokia eskaintzeko, hazten laguntzeko, azterketa medikoak egiteko eta euskal kulturaren eta sahararren arteko harremana sustatzeko.

Edozein familia motak parte har dezake harrera-familia gisa, bai bakarrik dauden pertsonen, bai bizikidetzaren unitate

teek, seme-alabekin edo gabe. Baldintza garrantzitsuenak adingabeari eskaintzeko denbora eta gogoa izatea eta ostatu hartzeko tartea izatea dira.

Programaren informazio guztia oporrabakean.eus webgunean jasota dago. Haur saharar bat uda honetan harreran hartzeko interesa duten familia edo pertsonen webgunean dute informazioa, edo lurralde bakoitzaren arduradunarekin harremanetan jarri: 696014786 / oporrabakean@gmail.com. **K**

Barreterapia eta perkusio saioak antolatu dira zilegi eskolen barruan

AEK TAILERRAK

Zilegi eskolak egitasmoaren barruan bi tailer antolatu dira otsailaren 19an eta 26an, Maialen Viañak barreterapia saioak eskainiko ditu bi egunetan. Aukera egongo da goizez edo arratsaldez egiteko. 09:30etan, musika eskolaren ondoko lokalean izango da eta 19:30etan kiroldegiko aretoan. Partehartzaileek esterilla, toaila edo kuxinen bat eraman behar dute. Bestetik, otsailaren 25ean, asteartean Jon Patxek perkusio saioa eskainiko du, 09:30etan, Nabarra Oñatz kaleko AEKren lokalean eta 19:00etan kultur etxean. Izen ematea doan da eta zilegieskola@aekeus helbidean edo kultur etxean egin behar da.

Gaztelekuan inauteriak prestatuko dituzte

GAZTELEKUA INAUTERIAK

Inauterietarako astebete baino gutxiago falta da eta herriko gazteak inauteriak prestatuko dituzte gaur eta bihar Gaztelekuan. Gaur arratsaldeko 16:30etan irekiko dute eta bihar 17:00etan.

Hondakina bereiztu kanpaina, Kontxa Etxeberria eta Barandiaran plazetan

HONDAKINAK UDALA

Hondakinen inguruko sentsibilizazio kanpaina bat abiatu du Udalak. Herritarrek badira hondakinak edukiontzien inguruan uzten dituztenak, nahasian eta sailkatu gabe. Arazo hori erakutsi eta utzikeria horri aurre egiteko Astigarragako Udalak sentsibilizazio kanpaina bat jarri du martxan. Bihar arte Kontxa Etxeberria plazan eta Joseba Barandiaran plazan pilatzen ari dira edukiontzien inguruetan oker utzitako hondakin eta poltsak. Poltsa horietan hondakin asko dira bereizi beharrekoak. Sentsibilizazio ekintza honekin edukiontzi inguruetako arazoa plazara ekarri nahi izan du Udalak, denok arazoaz jabetzeko. Ondoren, poltsa eta hondakin horiek guztiak sailkatu eta pisatu egingo dituzte, hobetzeko zer dagoen erakusteko. Jarraian, datorren astean zehar hondakinak egoki bereizteko informazioa biltzen duen esku-orria banatuko da etxebizitza guztietan. «Guztion eginbeharra da hondakinak ondo sailkatu eta bakoitza bere edukiontzian uztea» adierazi dute Udaleko arduradunek.

EAJren ustez «Astigarragan hondakinak biltzeko sistema aldatzeko mehatxua egin du EH Bilduk»

EAJ-PNVk dio EH Bilduren asmoa «poligonoetan atez ateko bilketa egitea dela eta zerbitzua Garbitaniari esleitzea, atez atekoaren enpresaren ardura zuen enpresari, alegia».

EAJ-PNV PRENTSA OHARRA

Astigarragako EAJ-PNVren ustez, «ez da beharrezkoa eta zentzuzkoa EH Bilduren udal gobernuak industrialdeetako hondakinen bilketari buruz egingo duen ikerketa». Alderdi jeltzaleak prentsa ohar bidez adierazi du «azterketa horren benetako helburua industrialdeetan atez atera itzultzea da eta zerbitzua Garbitaniari esleitzea».

EAJ-PNVk dio: «Garbitania da 2013 eta 2016 artean Astigarragan atez ateko bilketa egin zuen enpresa publikoa, EH Bilduren inposaketatik. EAJk

sistema aldatu eta edukiontzia ezarri zituen, herritarrek kontsultan erabaki zuten bezala. EH Bilduk galdeketa errespetatuko zuela esan arren, hau da herritarren erabakiaren aurkako lehen urratsa».

EAJren esanetan, «EH Bilduk Astigarragan atez atekoa inposatu zuen, eta Garbitania ere bai. 121.000 euro erosi zituen akziotan, atez ateko gutzia egia bihurtzeko; bilketa ia 300.000 euro garestiagoa da urtero, San Markoseko Mankomunitatearen bitartez edukiontzien bidez baino. Lau urtetan, EH Bilduk 1.280.000 euro xahutu zituen».

Hondakinen sistema alda-



Industrialdeetako hiri-hondakinen bilketa aztertuko du Udalak.

zteaz gain, Garbitaniatik atez ateko tramiteak hasi zituen EAJren gobernuak. «Astigarragako Udalak EH Bilduk enpresan inbertitutako 121.000 euroak berreskuratu behar zituen, baina gobernu abertzale berriak enpresaren irteera geldiarazi du. Garbitanian jarraitzeko arrazoi

bakarra atez atekora itzultzea da. EH Bildu poligonoetatik hasiko da», adierazi du talde jeltzaleak.

«**Herritarrek engainatzea da**» «Gobernu talde abertzalea industrialdeetan bilketa zerbitzuak hobetzeko azterketa bat

saltzen ari da, eta benetan egingo duena da sistema aldatu, Garbitania elikatzen jarraitzeko, azterketaren emaitzak alde batera utzita. Garbitaniak EH Bilduren txosna izaten jarraitzen du, eta EH Bildu, berriz ere, herritarrek engainatzen ari da», adierazi du EAJk. **K**

Burdinolei buruz ariko dira gaur, Etxeberria eta Mitxelena

Hitzaldia eskainiko dute Joxe Jabier Etxeberriak eta Antton Mari Mitxelenak, 18:30etan ganbaran, Goizueta eta inguruko burdinolei buruz.

GOIZUETA HITZALDIA

Goizuetako eta inguruko historiari beste errepasso bat egingen diote gaurkoan, eta burdinolak izanen dituzte hizpide, hain zuzen ere. Hitzaldia eskainiko dute Joxe Jabier Etxeberriak eta Antton Mari Mitxelenak, Goizueta eta inguruko burdinolei buruz. Arratsaldeko 18:30etan izanen da, udaletxeko ganbaran.

Zehazki, herrian bertan eta zortzi bat kilometroko ingurunean dauden edo egon diren burdinolen berri emanen dute; dokumentuetan azaltzen diren 26 burdinolak, hain justu. Horiei buruzko azalpenak, datu, krokis, plano zein maketetan oinarritutako dituzte.



Iberoko burdinola, gaur egun. Hari buruz ere ariko dira, gaurko hitzaldian.

Burdinolen historia ez ezik, itxura eta egitura ere bai

«Aurkezpen historiko bat egingen dut nik, batez ere zentratuta garraioan eta Goizuetatik kanporako bide eta galtzadetan. Eta irudi batzuk ikusiko ditugu, geratzen diren arrastoak eta inguruko mendietan ikusi daitezkeen meatzeenak», aurreratu du Joxe Jabier Etxeberriak.

Bideo proiektio bat jarriko dute ondoren, burdinolei buruzko lanak nolakoak ziren irudikatuko. Eta azkenik, Antton Mari Mitxelenak azalduko du, nola-

koak ziren Goizuetako olak eta presak, nolako itxura eta egitura zuten... «Antton Mari aspalditik aritu da datuak biltzen eta olen arrastoak neurtzen, eta lan asko egin du artxiboetan, kontratuak aztertzen. Bereziki aztertu du olen itxura eta egitura, eta lortu du horiek marraztea, nolakoak ziren gutxi gorabehera», nabarmendu du Etxeberriak.

Horrekin guztiarekin, hiru dimentsiotako maketak ere osatu ditu Mitxelenak, Goizuetako eta inguruko olak irudikatzen dituztenak. **K**



Ereñotzuar guztiak daude deituta, gaurko Auzo Batzarrean.

2020ko asmoen berri gaur, Auzo Batzarrean

Goizeko 10:30etan egingo dute, Auzo Udalak deituta; eta ahalik eta auzotar gehien gerturatzea eskatu dute.

EREÑOTZU AUZO UDALA

Gaur egingo dute Auzo Batzarra, Ereñotzuko Auzo Udalak deituta. Goizeko 10:30etan izango da, Auzo Etxeko kultur aretoan, eta landuko dituzte orain arte egingakoak eta aurrera begira dauzkatzen asmoak.

«2020ko urte hasiera honetan, aurreko urtean zehar egingakoak azaldu, eta aurtengorako asmoen berri eman nahi

diegu auzotarrei, batzarrean», azaldu dute. Horiek daude jasota, lau puntuko gai zerrendan: 2019 urteko jardueraren eta diru kontuen laburpena; 2020 urterako proiektu asmoak, eta aurrekontuaren azalpena; Olak Auzo Elkartearen jardura eta aurrekontuaren azalpena; eta eskari zerrenda.

Gaiek «auzoarentzat duten interesa» ikusita, auzotar guztiei azaltzeko deia

Ereñotzuar guztiei irekia izango da batzarra, eta gonbitea luzatu diete denei, bertaratzeko: «gaiek auzoan duten interesa ikusita, komenigarria litzateke ahalik eta auzotar gehien elkar-tzea batzarrean», azaldu dute. **K**

Liburutegi ibiltariak Arano eta Goizuetara bisitan, hilean behin

Leitzako liburutegiko langilea joanen da hilean behin. Otsailaren 28an izanen da, bi herrietan: Goizuetan 14:30etan, eta Aranon 15:30etan.

ARANO-GOIZUETA LIBURUTEGIA

Liburutegi ibiltaria zerbitzu berria jarri du martxan Harkaitz Delgadok, Leitzako liburutegiko langileak. Eta horri esker, liburutegiko zerbitzuak jasoko dituzte Aranon eta Goizuetan, hilean behin.

Hileko azkeneko ostiralean joanen da bi herrietara, eta beraz, otsailaren 28an egingen du estreinako bisita, Liburutegi ibiltariak. Eguerdiko 14:30etan izanen da Delgado Goizuetan; eta 15:30etan iritsiko da, Arano-ko Maisuenera.

Otsailaren 7an aurkeztu zuten zerbitzua Goizuetan, Harkaitz Delgadok berak.

Liburuak, filmak eta musika, maileguan hartzeko aukera Doako zerbitzua izanen da, eta Nafarroako Liburutegi Sarearen

katalogoko liburuak, filmak eta musika hartu ahal izanen dute maileguan, aranoar zein goizuetarrek. Oso eskaintza zabala dauka, gainera: sei astez eduki daiteke hartutako materiala, eta txanda bakoitzean, 12 elementu hartu daitezke, gehienez.

Interneten ere badauka zerbitzua, filmak ikusteko zein formatu digitaleko liburuak irakurtzeko. Bertan, 16.000 pelikula dauzkate eskura herritarrek, eta astean bi ikusi ahal izanen dituzte.

Izenematea, zerbitzua erabiltzeko

Zerbitzua erabili ahal izateko, izena eman behar da aurrean. Horretarako, Harkaitz Delgadok bisita egiten duenean aprobe-txatu daiteke, edota bi herrietako toki ezberdinetan dauden izenemate txartelak bete: Ara-

noko udaletxean eta ganbaran, eta Goizuetako udaletxean eta Amaia kafetegian. Honako datuak eman behar dira: izen-abizenak, helbidea, telefono mugikorra, posta elektronikoa, NAN zenbakia (14 urtetik gorakoek) edo arduradun baten baimena (14 urtetik beherakoek).

WhatsApp edo Telegram bidez zein telefonoz, eskaerak

Nafarroako Liburutegi Sarearen katalogo osoa, ikusgai dago interneten: www.navarra.es/opac, ordenagailutik ikusteko; edota www.navarra.es/Mopac, mugikorretik ikusteko. Bertan ikusitako zerbitzuak eskatu nahi izanez gero, liburutegiarekin jarri behar da harremanetan. Hiru bide daude aukeran: WhatsApp edo Telegram bidez idatzi, 617 385 882 telefonora; edo deitu 948 51 03 79 telefono zenbakira.

Zalantzak argitzeko eta informazio gehiago eskatzeko, hiru aukera horietaz gain, posta elektronikoko helbidea ere eman dute: bibllilei@navarra.es. **K**

Goizutrailen izena emateko epea, zabalik

Dagoeneko apuntatu daiteke, interneten: 'www.herrikrosa.eus'.

GOIZUETA MENDI LASTERKETA

Maiatzaren 16an izanen du zazpigarren edizioa, Goizutrail mendiko lasterketa; eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Interneten egin daiteke, www.herrikrosa.eus webgunean,

lasterketaren hiru modalitateetarako: 25 kilometro, 10 kilometro, eta 25 kilometro binaka errelebotara (aurrekoak 10 kilometro, eta bigarrenak 15).

Ibilbide luzean, 20 euro dira izenematea, eta ibilbide laburrean 15 euro. Goizuetarrek 5 euroko deskontua izanen dute, bietan. Binakakoan, berriz, 30 euro dira, eta 10 euroko deskontua izanen dute herrikoek. **K**

NANa berritzeko aukera, ostegunean

ARANO-GOIZUETA TRAMITEAK

Hilean behin daukate aranoar eta goizuetarrek, Nortasun Agiri Nazionala berritzeko aukera, Leitzan. Eta otsaileko hitzordua, datorren ostegunean izanen da. Horretarako, txanda hartu behar da aldezturik, telefonoz deituta: 948 01 20 12.

Joku tailerra Goxalin, aste honetan

GOIZUETA GOXALI

Hilabeteko azken osteguneroko bezala, joku tailerra egingo dute aste honetan ere, Goxalin. Ostegun arratsaldean egingen dute, 17:00etatik 18:00etara; eta doakoa izanen da.

Zomorroak eta haurren Zahagi Dantza protagonista Aranon, bailarako Inauteri goiztiarrenetan

Gaur ospatuko dituzte Inauteriak aranoarrek, eta egun osoko festa prestatu dute. Goizean goiz abiatuko dira Zomorroak puska biltzera, bazkaria egingen dute gero, eta Zahagi Dantza izanen da arratsaldean. Afalostean, bingo musikatua.

ARANO INAUTERIAK

Bailaran beste inon baino lehenago ospatuko dituzte Aranon, urtero bezala, Inauteriak. Gaur bertan izanen dira, eta egun osoko festa prestatu dute, Zomorroak eta Zahagi Dantza protagonista direla.

Goizean goiz abiatuko dira Zomorroak puska biltzera, Izer eta Alabierren trikiti eta pandero doinuek lagunduta. Goizeko 08:00etan jarri dute hitzordua, eta Beltsoko bordan hasiko dira.

Elkarrekin igaroko dute goiza aranoarrek, beraz; eta baz-

kaldu ere, elkarrekin egingen dute, Zomorroen bazkariarekin. Horretarako, hori bai, Kontsejun eman behar zen izena, ostegunera arte.

Arratsaldean, berriz, Zahagi Dantza biziberrituak hartuko ditu Aranoko kaleak. Haurrek egingen dute beste behin, 2016an erreleboa hartu zutenetik egin duten bezala. 17:30etan hasiko dute, ohitura zaharra.

Eta eguna modurik onenean bukatzeko, afari herrikoa antolatu dute elkartean; eta bingo musikatua izanen da ondoren, saltsa jartzeko. **K**



Haurrek egingen dute Zahagi Dantza, aurten ere, 2016tik orain arte bezala.

Inauterietan zirko ederra montatzeko prest, goizuetarrak

Otsailaren 23tik 25era, etenik gabeko festarekin ospatuko dituzte Inauteriak aurten; eta hilaren 29an izanen da Kontuen Eguna. Zirkoa jarri dute astelehenerako mozorroetarako gaia.

GOIZUETA INAUTERIAK

Gaingan dute goizuetarrek, urteko zita nagusienetako bat, herrian. Bihar zortzi, datorren igandean, hasiko dira Inauteriak Goizuetan; eta ohi bezala, etenik gabeko festa protagonista dela, lau egunez ospatuko dituzte: otsailaren 23tik 25era izanen dira, eta hilaren 29an egingen dute Kontuen Eguna.

Ohi bezala, gaztetxoena izanen da Inauterietako aurreneko Zahagi Dantza, igande arratsaldean; eta horrek emanen dio hasiera festari. Makilkadak jaso eta herritarren aurpegiak beltzez zikindu ondoren, zahagiek trikitilarietara utziko diete protagonismoa, eta Leire eta Maria ariko dira kaleak alaitzen, Mozorroen afarira bitarte.

Zirkoa, astelehenerako gaia

Eta otsaileko azkeneko asteare-

kin etorriko dira, Inauterietako egun nagusiak. Bete-betea prestatu dute astelehena, beste urte batez; eta jakinarazi dute mozorroetarako gaia ere. Zirkoko pertsonaiak izanen dira goizuetarrak, egun batez: trapezistak, malabaristak, pailazoak...

Goizean goiz hasiko dute baserrietara bisita Mozorroek, eta hortik aurrera, denetik izanen da herrian: hamaiketakoak, konpartsaren kale buelta, haurren zein helduek bazkariak, taillerak, txokolatada... Iluntzean iritsiko dira herrira Mozorroak.

Eta asteartekoa, ez da gutxiago izanen. Gosaldu ondoren, herriko kaleetan dantzari ariko dira Mozorroak, eta bazkalostean, Zahagi Dantza izanen da herritarrek bilduko dituen, Motzanan hasita. DJ Txokoren musikak eta Mozorroen afariak emanen diete bukaera Inauterietara, kontuak egin aurretik. **K**



Vikingoz jantzita, ederki pasa zuten goizuetarrek joan den urtean, Inauterien astelehenean. Argazkia: Felix Loiarde

GOIZUETAKO INAUTERIAK

Otsailak 23, igandea

17:00, Gaztetxo Zahagi Dantza.
18:00, Leire eta Maria trikitilariak.
21:30, Mozorroen afaria.

Otsailak 24, astelehena Zirkoa

08:00, Mozorroen irteera baserrietara.
10:00, Plaza apainketa.
11:30, Hamaiketakoak.
12:00, Konpartsa, herrian zehar.

13:30, Haurren bazkaria.

14:00-16:30, Haurrentzako tailerrak.

14:30, Helduen bazkaria.

18:00, Txokolatada.

18:00, Gorka eta Garazi trikitilariak.

Iluntzean, Mozorroen etorrera dultzaineroekin.

22:00, Mozorroen afaria.

Otsailak 25, asteartea

09:00, Mozorroen gosaria.

10:00, Mozorroak dantzan, herriko

kaleetan zehar.

14:30, Mozorroen bazkaria.

17:30, Zahagi Dantza, Motzanan hasita.

18:30-21:30, DJ Txoko.

22:00, Mozorroen afaria.

Otsailak 29, larunbata Kontuen Eguna

13:00, Poteoa, Igandea txarangak girotuta.

14:30, Mozorroen bazkaria.

17:30etatik aurrera, Igandea txaranga, herrian zehar.

«Anoetan beti harmailetatik ikusi dudana barrutik bizitzea, oso-oso polita izan zen»

Futbolaren munduan, protagonista nagusietako bat da Mirandes, une honetan; eta taldeko kapitaina da Gorka Kijera Salaberria hernaniarra. Realaren kontra, Kopako semifinaletako joanekoa jokatu zuen herenegun, Anoetan, eta 2-1 galdu zuen. Martxoaren 4an bueltakoa, Miranda de Ebron.

HERNANI FUTBOLA

Zer moduz, osteguneko partiduen ondoren?

Pixka bat nekatuta, baina ondo. Uste dut oso itxura ona eman genuela Realaren kontra. Partidu zaila zen, eta hasieratik nahi genuena zen, etxeko partidura bizirik etorri, emaitza on batekin. Eta helburu hori behintzat lortu genuen. Hala ere, partidua nola joan zen ikusita, uste dut posible zela hobea izatea. Baina ezin gara kexatu, hasi aurretik denok sinatuko baikenuen horrelako emaitza. Beraz, pozik bueltatu ginen.

Bagenekien guretzako partidu zaila zela Anoetako, beraiek han saiatu behar zutelako kanporaketa erabakitzen, eta ez genien utzi. Bagenekien zein zen Realaren jokoa, eta lortu genuen normalean egiten duen joko hori ez egitea. Gustora egon gaitezke; landutakoa atera zitzaigun.

Zure lanarekin pozik?

Bai bai, gustora nago egin nuen partidurekin. Azken batean, lehenengo mailako jokalarien kontra aritzen zarenean, hasieran beti daukazu beldur hori, gai izango ote zaren beraie aurre egiteko. Eta uste dut jokaldi gehienetan lortu nuela, eta aurrera jo behar izan nuenean ere ondo egin nuela.

Berezia izango zen Anoetan jokatzeko, ezta?

Jokatu dudana partidurik berezi-ena izan zen, emozionalki. Familia han zegoen, lagunak, ezagun asko... Eta zelaira kapitain bezala ateratzea. Jokatu dudana partidurik politena. Anoetara askotan joan naiz, eta beti kanpotik ikusi dut jokoa, harmailetatik. Eta hori barrutik sentitzea eta bizitzea, oso-oso polita izan zen niretzako. Ikusle bezala joaten nintzenez ondoan zegoena, herenegun kontra zegoen; horiek dira futbolak ematen dituen bueltak. Baina osteguneko, disfrutatzekeko partidu izan behar zen, eta lortu nuen; uste nuena baino askoz ere gehiago, gainera. Jende gutxi izango du aukera, esperientzia hori bizitzeko, eta nik lortu egin dut aukera hori. Txikitatik eduki ditudan taldekideetatik, ni izan naiz

bakarra, Anoetan partidu ofizial bat jokatzeko aukera izan duena. Eta nolako partidu, gainera: Kopako semifinalla, partidu nahiko borobila eginda... Pozik eta harro nago lortutakoarekin.

Sekulakoa ari zarete egiten.

Bai, bigarren mailako talde batekin hau lortzea, ez da batere erraza. Primerako hiru talde kanporatzea ez da erraza, eta baloratu behar da egin duguna. Baita semifinaletan orain arte egin duguna ere. Realaren kon-

«Mirandan dagoena da eromena. Herria zoriontsu dago, eta guri poz haundiagoa ematen digu horrek»

tra tokatu izana, ospatu egin nuen nire barruan, esperientzia hori bizi nahi nuelako. Ez baitut askoz ere aukera gehiago izango horretarako. Herenegun izan zen eguna, nire ibilbidearen bukaera aldera, eta betirako geratuko zaidan oroitzapen bat da. Futbola bukatzen zaizunean, geratzen dena hori da, oroitzapenak eta momentuak; eta osteguneko garrantzitsu eta onenetako bat izango da.

Nolako asteak ari dira izaten taldean eta herrian?

Taldearentzako, pixka bat zailak. Alde batetik, ez gaudelako ohituta hainbeste partidu jokatzen; urtarrila hasieratik orain arte, astero bi. Eta pixkanaka nabaritzen da hori hanketan. Eta bestetik, buruarentzako ere zaila da. Izan ere, Kopan aurreneko mailako taldeak kanporatzen dituzunean, herriko jendea ahaztu egiten da liga ere badagoela, eta zaila da partidu horietarako zentratzea. Atzo kalera atera, gaur kalera atera, eta inork ez du hitz egiten ligako biharko partiduari buruz. Herrian dagoena da eromena. Anoetakoaren ondoren, jendea esperantzarekin dago, eta hori nabaritzen da kalean. Jendea pozik ikusten duzu, eta hori guretzako sekulakoa da; futboleko jokatzeko dugu, baina norbait zoriontsu egiten badugu, ba ho-

reto. Oraintxe herria zoriontsu dago, eta horrek poz haundiagoa ematen digu.

Bizi-bizirik iritsiko zarete bueltako partidura. Zer espero duzu bueltako partiduan? Anduva zelaia beldur eszeniko pixka bat sortzen du orain...

Gu seguru sentitzen gara etxean. Jendea alde daukagu, estadio txikia da, *koketoo*, eta belarra ere ez da Anoetako berdina. Beraz, Realak sufrituko du, besteek sufritu duten bezala. Gero irabazi egingo dute beharbada, jende oso ona daukatelako, eta kalitatea soberan. Baina argi dago Realak ezin duela lasai etorri. Emaitza motza da, bizirik gaude; 1-0 irabazita gu pasatzen gara, adibidez. Beraz, lasai hartu behar dugu partidu, jakinda Reala oso faborito dela oraindik, baina herenegun gaueko bederatzietan baino pixka bat gutxiago. Pauso txiki bat eman dugu gure alde, baina orain pauso haundi bat eman behar dugu Anduvan.

Finala jokatzeko ikaragarria izango litzateke. Imajinatu duzu halakorik?

Imajinatu dena imajinatu daiteke, libre da hori. Kopa altxatzen ere imajinatu dut nire burua. Baina errealitatean jarrita, badakigu zaila dela, eta oraindik amets bat dela. Espero dut, hiru aste barru Sevillarako txartelak hartzen egotea, guk jokatu behar dugulako; baina oraindik oso urruti ikusten dut. Oraindik ametsa da, eta lasai hartu behar dugu; hiru aste ametsetan gehiegi da...

Zer moduz Mirandesen?

Seigarren denboraldia duzu, ia dena jokotuta, kapitain...

Ezin naiz kexatu. Baloratua sentitzen naiz, urte gehienetan partidu gehienak jokatu ditut, kapitaina naiz... Jokalari batek hori bilatzen du, dagoen tokian baloratua sentitzea, gustora egotea eta jokatzeko; eta Mirandan oso gustora nago. Beti esan dut, nire kirol ibilbidea hemen bukatzea dela nire asmoa, oraindik ez dakit noiz. Denetik bizitu dut hemen. Ligan oso denboraldi onak, Kopan final laurdenetara



Gorka Kijera osteguneko Realaren kontrako partiduan, Anoetako zelain.

iristea, bigarren B mailara jaitsiera, bigarren mailara buelta... Eta aurtengoa berezi-ena ari da izaten. Ligan ondo gabiltza, asko

«Nire ibilbideko momenturik onena ari naiz bizitzen; gozatu eta aprobetxatu egin behar dut hori»

sufritu gabe, eta Kopan egiten ari garena sekulakoa da. Orain ari naiz bizitzen nire ibilbideko momenturik onena, eta gozatu eta aprobetxatu egin behar dut.

Eibarren lehenengo mailara igo, eta debutatu gabe

Mirandesera joan zinen.

Hala ere, zuretzako ez zen atzerapauso bat izan, ezta?

Segun eta nola begiratzen diezun izaten dira gauza horiek. Jokalariok beti daukagu primeran debutatzeko ametsa, eta Eibarrekin lortu nuen aukera hori, igoera lortuta. Baina futboleko momentu zailak ere izaten dira, eta denboraldi hori hasi baino bi aste lehenago esan zidaten ez zutela nirekin kontaktatzen. Momentu gogorak dira, eta bi aukera daukazazu: lur jota geratu, edo beste aukera bat bilatu eta disfrutatzen saiatu. Nik bigarrena egin nuen, Mirandara etorrita, eta hasieratik izan nintzen jokalari garrantzitsua. Beraz, ez dut atzerapauso bat bezala ikusten. Kategoria bat jaitsi nintzen,

baina kirol arloan gora egin nuen, eta nire maila igotzeko balio izan zidan. Aurrerapauso bat izan zen, azken finean. Gauza haundiak bizitu ditut hemen.

Ez zaizu geratu, primeran ez debutatu izanaren pena?

Pena hori beti geratzen zaizu, baina gero erreparatzen badiuzu zure kirol ibilbideari, uste dut orokorrean ona dela. Umetan futboleko hasten den askori gustatuko litzaioke nik izan dudana ibilbidea edukitzea. Beraz, alde horretatik oso pozik nago.

Ez duzu amesten, Mirandesekin primeran aritzearekin?

Gehiegi amestea da hori! Aurreneko da 50 puntuetara iristea, mailari eusteko. Eginda daukagula dirudi, baina kategoria hau oso zaila da, eta lehenbailehen iristea hobe. Gero zerbait gehiago lortu daitekeela? Borrokatuko dugu. Baina aurrea ziurtatu dezagun hori, eta hortik aurrera amestuko dugu.

Batek daki, agian primeran ez, baina European jokatzeko ariko zarete datorren urtean!

Horretatik bi partidutara gaude (barrez)! Kopa irabazita joango ginateke Europara. Badirudi gutxi dela, baina asko egin behar da, eta daukan zailtasuna ikusita, oraindik ere gehiago. European jokatu behar bada, jokatu dugu (barrez). Baina oso zaila da, eta oraingoz, ez dugu pentasatu ere egingo horretan. **K**

HamaiKa

...Bai, arrazoi duzue. Eskolako bazkaria ez da beti gustukoena izaten. Alde ederrekoak izaten dira amatxiren kroketak! Baina ahaztu hori, eta bila itzazu bi irudi hauen artean dauden hamaika ezberdintasunak.




Badakizu
zer dioen esaera zaharrak?

Otsaila bero, Negua gero

Graffiti

Imajina ezazu ondoko hau zure eskolako pareta dela. Egin ezazu graffiti lotsagabe samar bat. Edo nahiago baduzu, aldarrikatu ezazu zerbait, idatziz.



EGILEA: Garbine Ubeda (Aiurri)

TOKIKOMeko beste hedabideekin elkarlanean argitaratutako atala.

SOLUZIOAK: Sartu www.plazanbazan.eus web atarian eta denbora-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

QRak irakurtzeko aplikazio batekin irakurri



Otsailak 29, larunbata HERNANIN, ORONA FUNDAZIOAN

Bi saio:

- 1. saioa: 16:30ean
- 2. saioa: 18:30ean

**SARRERAK
SALGAI!**

Sarrerak:

7 € + 3 € elkartearen laguntzarako
Guztira: 10 €

Non erosi?

HERNANI: Dobera - Kronikako bulegoan (Larramendi 11, behea)
ASTIGARRAGA: Merke azoka dendan (Kale Nagusia 33)

**DO
BE
RA**
EUSKARA
ELKARTEA

943 33 27 99
dobera@dobera.eus



Zailtasunak zailtasun, irabazi beste aukerarik ez daukate trikoloreek

Bi asteburuko atsedenetik bueltan, etxean ariko da Hernani, gaur 16:00etan. Independiente hartuko du Landaren, seigarren sailkatua.

HERNANI ERRUGBIA

Denbora bukatzen ari zaio Hernaniri, beste denboraldi batez errugbiaren Ohorezko Mailari eusteko. Gogo eta kemenik ez dute falta izan trikoloreek orain arte, ezta joko onik ere, partidu askotan; baina garaipenek eta puntuak ihes egin diete.

Eta bi asteburuko atsedena- ren ondotik, ligako azken txan- pari ekiteko prest daude her- naniarrak. Hemendik aurrera, zailtasunak zailtasun, irabazi beste aukerarik ez daukate, ahal duten partidu guztietan. Aurre- nekoa gaur izango dute, etxean, zaleen babesean. Arratsaldeko

16:00etan hasita, Santanderreko Independiente hartuko dute Lan- daren; sailkapenean seigarrena.

Maila haundiko taldea izan- go da bisitan, beraz; baina horri erreparatu gabe zelairatu behar- ko dute trikoloreek, eta garaipe- na bilatu, hasieratik bukaerara.

Denboraldi honetan bertan, erreferentzia ona dauka Herna- nik: joaneko partiduan, Santan- derren, puntu bakarreko aldea- rekin galdu zuen (22-21).

Hiru partidu garrantzitsu, eta martxoan etena berriro

Gaurko partidua ondoan, bi partidu garrantzitsu izango ditu Hernanik, hurrengo bi astebu-

ruetan: Santboiana hartuko du Landaren, eta Burgosen zelaian ariko da. Eta horren ondoren, bi asteburuko etena izango dute berriro, martxoan.

Orduan, azkeneko bost parti- duak besterik ez dituzte faltako: Alcobendas eta Bathco hartuko dituzte Landaren, eta VRAC, EL Salvador eta Bartzelonaren ze- laietara egingo dute bisita. Be- raz, garaipenak gaurtik pilatzen hastea, ezinbestekoa.

Bultza Ligakoa, Bilbon

Bestalde, asteburu honetan jo- katuko du Hernaniko talde bar- neratzaileak, Bultza Ligako hi- rugarren jardunaldia. Bilboko El Fango zelaian ariko dira trikolo- reek, gaur bertan, eta Uni Bilbao taldea izango dute aurrean.

Horrekin, ligako aurreneko itzulia bukatuko dute. **K**



Loketi Manu, zigor kolpe bat gauzatzen, Cienciasen kontrako partiduan.

ERRUGBIA

MUT. OHOR. MAILA	Hernani-Independiente	Landaren	Gaur 16:00
BARNERATZAILEA	Uni Bilbao-Hernani	Bilbon	Gaur
MUT. SUB 23	Hernani-Independiente	Landaren	Gaur 14:00
MUT. SUB 18	Uni Bilbao-Hernani Atletico	El Fangon	Gaur 12:00
MUT. SUB 18	Gaztedi-Hernani Atletico	Lakuan	Gaur 12:30
MUT. SUB 14	La Rioja-Hernani Atletico	Prado Viejon	Gaur 15:30

FUTBOLA

MUT. OHOR. ERREG.	Hernani-Amaikak Bat	Zubipen	Gaur 16:30
NSK. OHOR. ERREG.	Lagun Onak-Hernani	Garmendipen	Gaur 15:00
MUT. ERREG. PREF.	Mundarro-Vasconia	Zarkumendegin	Gaur 15:30
MUT. ERREG. PREF.	Roteta-Hernani	Herreran	Gaur 17:30
MUT. ERREG. 1GO MAILA	Urki-Mundarro	Unben	Bihar 12:15
MUT. JUB. NAZIONALA	Hernani-Gernika	Zubipen	Gaur 18:30
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Mundarro-Kostkas	Zarkumendegin	Bihar 12:00
MUT. JUB. OHOR. MAILA	Trintxerpe-Hernani	Trintxerren	Gaur 17:15
MUT. JUB. 1GO MAILA	Gure Txokoa-Mundarro	Matzadan	Bihar 17:15
MUT. JUB. 1GO MAILA	Urnieta-Hernani	Urnietan	Gaur 15:30
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Ostadar-Mundarro	Michelinen	Bihar 10:00
MUT. KAD. OHOR. MAILA	Hernani-Añorga	Zubipen	Bihar 12:00
NSK. KAD. 1GO MAILA	Mundarro-Martutene	Zarkumendegin	Gaur 10:00
MUT. KAD. 1GO MAILA	Amara Berri-Mundarro	Martutenen	Bihar 17:00
MUT. KAD. 1GO MAILA	Hernani-Urnieta	Zubipen	Gaur 13:00
NSK. INF. OHOR. MAILA	Hernani-Goierri Gorri	Zubipen	Gaur 11:00
MUT. INF. OHOR. MAILA	Mundarro-Orioko	Zarkumendegin	Gaur 12:00
MUT. INF. OHOR. MAILA	Hernani-Lengokoak	Zubipen	Bihar 10:00
MUT. INF. 1GO MAILA	Mundarro-Martutene	Zarkumendegin	Bihar 10:00
MUT. INF. 1GO MAILA	Hernani-Udarregi	Zubipen	Bihar 13:30

MUT. INF. TXIKIAK	Tolosa-Mundarro	Usabalen	Gaur 09:00
MUT. INF. TXIKIAK	Urki-Hernani	Unben	Bihar 13:30

SASKIBALOA

MUT. GIPIUZ. 1GO MAILA	Internacional-Mundarro	Monsen	Gaur 16:00
NSK. GIPIUZ. 2. MAILA	Bergara Soralue-Mundarro	Labegarietan	Gaur 18:00
MUT. GIPIUZ. 3. MAILA	Debasket-Hernani	Deban	Gaur 18:00
MUT. GIPIUZ. 3. MAILA	Mundarro-Aloña Mendi	Kiroldegian	Gaur 18:15
NSK. JUNIORRAK	Mundarro-Eroibide	Kiroldegian	Gaur 11:30
MUT. JUNIORRAK	Hernani-Easo Urdaburu	Kiroldegian	Gaur 18:00
MUT. KADETEAK	Antigua Luberrri-Hernani	Antigua Luberrin	Bihar 17:00
MUT. KADETEAK	Mundarro 1-Goierri	Kiroldegian	Gaur 11:15
MUT. KADETEAK	Andraitz-Mundarro 2	Bikuñan	Gaur 11:15
MUT. INFANTILAK	Hernani-Mundarro	Kiroldegian	Bihar 10:00

BOLEIBOLA

MUT. EUSKAL LIGA	Hernani-Navarvoley	Kiroldegian	Gaur 16:00
NSK. GIPIUZ. TXAP.	Hernani-Arantzazuko Ama	Kiroldegian	Bihar 12:00
NSK. KADETEAK	Hernani 2-Fortuna 1	Kiroldegian	Gaur 12:00
NSK. KADETEAK	Arantzazuko Ama-Hernani 1	Arantzaz. Aman	Gaur 11:00
NSK. INFANTILAK	Hernani 2-Fortuna Txiki	Pio Barojan	Gaur 11:00
NSK. INFANTILAK	Peñaflorida-Hernani 1	Peñafloridan	Gaur 12:15

ESKUBALOA

NSK. JUBENILAK	Aloña Mendi-Mundarro	Zubikoan	Bihar 12:00
MUT. JUBENILAK	Saieko-Hernani	La Sallen	Gaur 19:00
NSK. KADETEAK	Ereintza-Hernani	Beraunen	Gaur 17:30
MUT. KADETEAK	Hernani 1-Egja	Kiroldegian	Gaur 10:15
MUT. KADETEAK	Amenabar-Hernani 2	Zarautzen	Gaur 11:30
NSK. INFANTILAK	Hernani-Urola	Kiroldegian	Bihar 10:00

MUT. INFANTILAK	Hernani 1-Eibar	Kiroldegian	Gaur 13:00
MUT. INFANTILAK	Hernani 2-Arrasate	Kiroldegian	Bihar 12:00

WATERPOLOA

MUT. EUSKAL 2. MAILA	Hernani-Portugalete B	Kiroldegian	Gaur 13:30
----------------------	-----------------------	-------------	------------

PALA

NSK. EH. IREKIA 2. MAILA	Ekhine-Eli/Obe-Auña	Iruñean	Gaur 16:30
NSK. EH. IREKIA 2. MAILA	Orozko 2/Ainhoa-Eider	Gasteizen	Gaur 16:30
NSK. EH. IREKIA 3. MAILA	Orozko 2/Alaitz-Maddi-Joana	Munitibarren	Gaur 16:00
NSK. EH. IREKIA 3. MAILA	Enara-Ane/Orozko	Gasteizen	Gaur 17:00
MUT. NAG. UDABERRI	Zurutza-Manterola/Loiolatarra	Hernanin	Gaur 15:00
NSK. JUB. UDABERRI	Zumaia/Martinez-Arruti-Alsua	Zumaian	Gaur 10:00

ESKU PELOTA

MUT. NAG. TRINKETEA	Tolosa/Arizmendi-Aldunberri	Iruran	Gaur 13:30
MUT. JUB. TRINKETEA	Oiarpe/Oiartzabal-Mujika	Gaskan	Gaur 17:00
MUT. KAD. TRINKETEA	Behar Zana/Arabaolaza-Urdanpilleta	Gaskan	Gaur 15:30
MUT. KAD. TRINKETEA	Urdangarin-Saralegi/Oiarpe 1	Gaskan	Gaur 16:00
MUT. NAG. UDABERRI	Exposito-Labaka/Oberena	Hernanin	Bihar 11:30
MUT. KAD. UDABERRI	Deskarga-Alegria/Urdangarin-Saralegi	Hernanin	Bihar 11:00
MUT. INFANTILAK	Pascual-Azpeitia/Añorga	Hernanin	Gaur 15:30
MUT. INFANTILAK	Moral-Urrutia/Alberdi-Otaño	Hernanin	Gaur 16:00
ZIZURREKO TXAP.	Unax Uitz/Larraun	Zizurren	Gaur 16:00
IRURITAKO TXAP.	Legarreta-Aiur Elizazu/Baztan	Iruritan	Bihar 10:30
IRURITAKO TXAP.	Iturbe-Azpeitia/Gazteleku	Iruritan	Bihar 11:00

ERREMONTA

1GO PARTIDUA	Urrutia II-Arruarte/Beñat-Labaka	Galarretan	Gaur 16:00
2. PARTIDUA	Juanenea-Barrenetxea IV/Urriza-Ion	Galarretan	Gaur 16:30
3. PARTIDUA	Ezkurra II-Agirrezabala/Matxin III-Azpiroz	Galarretan	Gaur 17:00
4. PARTIDUA	Seguroa-Zubiri/Aldabe-Aizpuru III	Galarretan	Gaur 17:30

55garren edizioa izango du biharkoa, Adarraga Memorialak

Goizeko 11:00etan hasita, bost lasterketa izango dira, Hernaniko atletismo pistan.

HERNANI ATLETISMOA

Denboraldiko egun berezienetako izango dute biharkoa, Hernaniko atleta gaztetxoek. Izan ere, etxean ariko dira, Sagastialdeko atletismo pistan, Adarraga Memorialean parte hartzen.

55garren edizioa izango du probak, aurtengoa; eta goizeko 11:00etan hasiko dira lasterketak. Guztira, bost txandatan aterako dira, maila ezberdinetako partehartzaileak. Atletismo pistaren erdiko berdegunean, pistaren inguruan zein kanpoaldean ibiliko dira korrika.

Mutil infantilen txanda izango da aurrena, 11:00etan puntuan; eta 2.736 metroko ibilbidea osatu beharko dute haiek. Segidan aterako dira neska infantilak, 11:20etan, pixka bat laburragoa izango den ibilbidea egiteko: 2.122 metro. Distantzia hori bera osatu beharko dute mutil alebinek, 11:35etan abiatuta; eta 1.508 metro egingo dituzte neska alebinek, 11:50etan hasita.



Atletismo pistaren barruan zein kanpoaldean ariko dira bihar, korrikalariak.

Benjamin mailako korrikalarien lasterketak emango dio bukaera goizari. 12:00etan abiatuta, 670 metroko ibilbidea izango dute aurretik.

Gipuzkoako Txapelketa, jokoan Adarraga Memoriala ez ezik, jokoan izango da biharkoan, Hernanin, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa ere, kros modalitatean, alebin eta infantiletan.

Bihar bertan jokatu da, Ortuellan (Bizkaia), Euskadiko Kros Txapelketa, master mailatan: 35, 40, 45, 50 eta 55 urtetik gorakoetan, hain justu. Goizeko 11:00etan hasiko da. **K**

Hernaniko mutilek gaur Navarvoley liderraren bisita, kiroldegian

16:00etan jokatu dute lehenengo pistan eta irabazteko aurreko asteko maila igo beharko dute hernaniarrek. Aukerak badituzte.

HERNANI BOLEIBOLA

Hernanik Navarvoley liderraren bisita jasoko du, 16:00etan, kiroldegiko lehenengo pistan. Partidu zaila, baina era berean erakargarria dudarik gabe aurreneko sailkatuak eta bosgarrenak jokatu dutena Euskal Ligako hamalagarren jardunaldian.

Iruñerriko taldeak partidu bakarra galdu du eta hori lehen-

dabiziko jardunaldietan gertatu zen. Hamar partidutik gora daramatza galdu gabe, nahiz eta aurreko astean larri ibili etxean.

Hala ere, Hernanik irabazteko aukerak baditu, baina horretarako aurreko astean baino hobe jokatu beharko du. Teknikoki akatsak egin zituzten eta horiek ez dituzte barkatzen nafarrek. Hernanik bederatzita partidu irabazi ditu eta bosgarren postua ziurtaturik du. Helburua

oraingoz liderra gainditzea da.

Bihar neskek, Arantzazuko Amaren aurka

Bihar neskek hartuko dute lekua kiroldegian. Gipuzkoako Ligan jokatzeko ari dira eta lider daude sailkapenean. 12:00etan Arantzazuko Amaren aurka jokatu dute eta berez hernaniarrek irabazi beharko lukete, sailkapenari erreparatu ezker, baina kirolean edozer gertatu daiteke. Kadete nesken bigarren taldeak ere etxean jokatu du gaur, 12:00etan Fortuna 1-en kontra. Beste taldeak, hiru guztira, kanpoan ariko dira. **K**



Leandro Miner ereñotzuarra, Goiz Eguzkiko tiraldi batean.

Binakako finala gaur, Altzako bolatokian

Bailarako hiru bolari izango dira bertan: Leandro eta Ibon Miner, eta Miguel Arrozpide.

EREÑOTZU-HERNANI BOLA

Zita garrantzitsua daukate gaur, Ereñotzuko eta Hernaniko bolariak. Izan ere, Binakako Txapelketaren finala jokatu dute, Altzan; eta bertan izango dira

bailarako hiru bolari: Leandro eta Ibon Miner osaba-iloba ereñotzuarrak, bikotea osatuta; eta Miguel Arrozpide hernaniarra, Antonio Goenaga altzatarretatik 11:00etara, eta arratsaldean 16:30etatik 17:30etara izango dituzte tiraldiak, orain arteko 10 bikote onenek.

Bihar, Lehendakari Txapelketari ekingo diote, eta Seguran izango dute estreinako tiraldia. Bost izango dira, guztira. **K**

Hernani-Easo, gaur junior errendimenduan

Talde hernaniarra denboraldi bikaina egiten ari da, eta 18:00etan jokatu du kiroldegian, beste garaipen baten bila.

ASTIGARRAGA-HERNANI SASKIBALOA

Asteburu honetan Astigarraga eta Hernaniko hiru talde nagusiak etxetik kanpo jokatu dute, baina zaleek izango dute Hernanin maila haundiko partidu bat ikusteko aukera. Talde juniorrak gaur, 18:00etan, kiroldegian jokatu du Easo Ur-

dabururen kontra. Juniorrak errendimendu ligan ari dira jokatzeko, eta seigarrenak daude sailkapenean. Easokoak azken sailkatuak dira eta hernaniarrek faborito dira irabazteko. Hori lortuz gero, laugarren postua gertu izango lukete.

Senior mailako taldeei dago kienez, Hernanik atzo iluntzean jokatu zuen Deban, Debasket taldearen kontra; eta Intxaurrondon jokatu dute Mundarrok mutilek gaur, 16:00etan, Internazionalen kontra. Mundarrok neskek, berriz, Bergara-Soraluze dute kontrario, gaur 18:00etan hasita, Bergaran. **K**

Hil ala bizikoa Olaizolak, bihar

GOIZUETA-HERNANI ESKU PELOTA

Partidu erabakigarria dauka bihar, Binakako Txapelketa Nagusian, Aimar Olaizola goizuetarrak. Urrutikoetxea lagun, Irribarria eta Rezustaren kontra ariko da, 17:00etan Tolosan. Seigarren postua dute jokoan, final laurdenetara azkeneko pasea ematen duena.

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak HARRERAKO LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Frantsesa eta ingelesa eskatzen dira. Lana luzerako da. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta ingelesa eskatzen dira. Lanaldi osoa eta luzerako. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

Marxan dagoen okindegia alokagai. Interesatuak deitu: **644 319 054**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

EGURALDIA

GAUR

Giro eguzkitsua izango dugu gaur, eta tenperaturak gora egingo du. Laino gutxi batzuk agertu daitezke, baina garbi egongo da zerua. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da. **Min.9° / Max.21°**

BIHAR

Hego-mendebaldeko haizea zakartu egingo da bihar, eta horren ondorioz, gora egingo du tenperaturak, berritua. Zerua laino gehixeago izango dira, baina giro argia izango dugu. **Min.13° / Max.22°**

(euskalmet)

TELEFONO ZENBAKIAK

TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

FARMAZIAK

Egunez: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Gaez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738**
Goizueta: Nagusia 64 948 514353



«Oso koloretsuak izaten dira Hernaniko Inauteriak, eta hala irudikatu nahi nituen»

Soilik 12 urterekin irabazi du Oihana Villalba hernaniarrak, Inauterietako kartel lehiaketa. «Txikitatik gustatu zait marraztea, eta akuarela dut gustukoen, kolore asko dituelako».

HERNANI INAUTERIAK

Inauteri garaian sartuta gaude, bete-betean. Eta Hernanikoek, hasi aurretik ere, ez dute faltako gaztetasunik eta kolorerik. Izan ere, halakoak dira aurtengo Inauterietako kartela, eta haren egilea: 12 urterekin irabazi du kartel lehiaketa, Oihana Villalba hernaniarrak; eta ezin koloretsuagoa da bere marrazkia.

«Ez nuen irabazterik espero, sekulako ilusioa egin zidan. Bozketara pasa ziren beste kartelak ikusi nituen, eta oso politak iruditu zitzaizkidan», kontatu dio Kronikari.

Edozein kasutan, bere proposamenarekin pozik zegoen hernaniarra: «egia esan, gustura geratu nintzen egindako lanarekin; denbora asko eskaini nion, eta gustatu zitzaidan, nahi nuen bezala geratu zelako».

Baina hala ere, sorpresaz hartu zuen; hasteko, bozketara sailkatu izana: «ilusio handia neukan, baina ez nuen uste epaimahaiak nire kartela aukeratu zuenik, herritarrek bozkatu behar zituzten kartelen artean». Puntu horretara iritsita, boto batzuk ziurtatuta zeuzkan: «lagunek esan zidaten nirearen alde bozkatuko zutela. Eta irabazita, denek zoriondu naute», azaldu du irripartsu.

Marrazki koloretsua, Hernaniko Inauterien elementu bereizgarriekin

Garbi zeukan Oihana Villalbak, akuarelarekin egin nahi zuela bere kartela: «marrazteko, akuarela gustatzen zait gehien; ia beti marrazten dut akuarelarekin. Kolore asko dauzka,

eta asko gustatzen zait nola geratzen diren marrazkiak. Oso marrazki koloretsuak izaten dira. Eta marrazteko, errazena da niretzat».

Nabarmena da hori, 2020ko Inauterietako kartelean: «Hernaniko Inauteriak oso koloretsuak izaten dira, eta hala irudikatu nahi nituen. Ez zedila izan kartel bat gris kolorekoa, baizik eta kolore biziak zituen».

Eta kolorearekin batera, herriko Inauterien beste hainbat elementu bereizgarri ere txertatu ditu hernaniarrak: «txertatu nahi nituen, Hernaniko Inauteriak bereizten dituzten gauzak; adibidez, hemengo buruhandi eta erraldoiak, Azeri Dantza, sardina, eta botila bat ere bai, sagardotegiei erreferentzia egin».

Akuarelarekin egin du kartel osoa, eta boligrafoa erabili du marrazkiak erreparatzeko.

«Txikitatik gustatu zait marraztea; etxean beti aritzen naiz marrazten»

Aurreneko kartel lehiaketa izan du Inauterietakoa, hernaniar gazteak: «ez dut beste lehiaketaren batean parte hartu orain arte. Baina akaso hemendik aurrera bai...». Edonola ere, ez da hasiberria, marrazki konputuetan: «txikitatik gustatu zait marraztea. Etxean beti aritzen naiz marrazten».

Etxetik datorkio marrazteko afizioa, Oihanari: «aitari asko gustatzen zaio marraztea. Eta amak ere eman ditu marrazketa klaseak». Peio Villalba artista hernaniarra du aita, hain justu: «berak asko erakusten dit, teknikak nola hobetu, nola egin



Oihana Villalba hernaniarrak enmarkatuta dauzka, kartel irabazlea eta Kronikako albistea, lehiaketa irabazi zueneko.

marrazki haundiagoak...». Joan den urtean, gainera, Hernaniko beste artista batekin eman zuen ikastaroa, Ainara Azpiazu Axpirekin, hain zuzen ere.

Denetik marrazten du berak, pertsonak, paisajeak... Baina bada marrazki mota berezi bat, oso gustuko duena: «begiak egitea gustatzen zait. Soilik begi bat marraztu, eta barruan pupilak kolore askorekin margotu».

Lehiaketa gazte irabazi izanagatik ere, ez dut etorkizunera begiratzen: «marrazten eta mar-

gotzen jarraituko dut, eta disfrutatu nahi dut», dio.

Eta berdin gozatu nahi du, baita ere, aurtengo Inauterietan, urtero bezala: «koadrilan beti ateratzen gara ospatzera, eta karreroza egiten dugu urtero. Aurten, aterako gara batzuk mexikarrez eta besteak Katrinaz (apaindutako eta dotore jantzitako kalaberak). Aurrekoetan, musikal bat irudikatu dugu, Asterix eta Obelix izan gara, txinatarrak, Bollywood, astronautak, zirku-pertsonaiak...».

IRUBIDE JATETXEA

Zure jatetxea, Epelen



Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702